





ARRASATE



**HIE Sari
aurpegia
emanez**

Zure zerbitzu informatikoa




- Ekipo informatikoen salmenta, mantenimendu eta konponketa.
- Sistema informatikoen aholkularitza.
- Material informatikoa (Disketteak, inpresora zintak...).
- Sare informatikoak.
- Software-a.
- Salmenta punturako terminala (T.P.V).

AIDE

Informatika

Basabe poligonoa, FO-9. 20500 ARETXABAleta

 771372

egizabal



oinetakoak poltsak

ferrerias, 9
☎: 79 66 01

arrasate

Zer diozu HIESaz?



Teresa Marco Etxekoandrea
(44 urte)

Gauza ikaragarri da eta horri aurre egiteko zerbait eskatzen badidate, normalean ematen dut.



Oscar Quintero Langabetua
(33 urte)

Oso gogorra da eta kontu handia izan behar da berarekin. Halere, kanpaina asko egin denez, uste dut jendeak badakiela zer den.



Ana Mari Garcia Langilea
(45 urte)

Pena bat da, gero eta HIESdun gehiago dago baina dugun arazoaz ohartuaz doa gizartea.



Emilio Del Campo Langabetua
(44 urte)

Gaisotasun arriskutsua da baina ez da Jainkoaren zigorra, batzuk esaten duten moduan.



Juncal Rekarte Etxekoandrea
(50 urte)

Gogorra da eta gure artean dago, beraz ikertu egin beharko da horri aurre egiteko.



Evaristo Garcia Jubilatua
(53 urte)

Txarra da eta gazteriari egiten dio kalte handia, horregatik HIESari buruzko informazioa eman behar da.



Minerva Brito Etxekoandrea
(64 urte)

Gaisotun txarra da, beraz prebenitu egin behar da preserbagailuak erabiliz; gainera, HIESdunak ez dira marginatu behar.



Jose Ignacio Rodil Iksale
(21 urte)

Arazo handia da baina gizarteak ez litzuke HIESdunak marginatu behar.

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Itxaro Zubillaga, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Jaxone Mendizabal eta Ikerne Altube (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain eta Itaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Blanca Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agornia, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karnele Perez, Sorginak, Koppi, Daniel Goikolea, Amaia Mariartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Legor-dordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta irizien erantzukizunik.
ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Joseba Valles.



Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du

“Txibato”

KASEk, bere kartel eta deialdian EAJ espagnolaren “txibato”tzat salatzen duenean, nahiz eta salaketa hauek Xabier Arzalluz, Atutxa etab.etan irudikatu, argi eta garbi ematen digu erakustera Euskal historiaren inguruan talde honek duen memoria txar eta analfabetismo kronikoa, batez ere bere inguruan emaniko gertakizunei dagokionean. Erraz ahazten dute, gaur eguneko historiari emaniko salatari, isilmandatari eta infiltratu “ilustratuenak” euren mundutik ateratakoak direla, hasi “El Lobon-gandik” eta “Kinitoganarte”.

Azken honi buruzko zerbait kontatzearen, gaur egun denok dakigu, eta ez KASEk eginiko salaketengatik, “Kinito” delakoa HB eta LABen zuzendaritza inguruan zebilela, GALen informazio sarea zen bitartean (eta orain Arzalluz EuskoGAL batekin erlazioz nahian dabilta, eurak bertan ibili eta gero?). Baina Kinitok ez zuen izan Sulibarria, Solaun edo eta Yoyes-en zorte bera, beharbada Cerecedaren, KASEko ideologotariko baten, babesean zegoelako. Non ote dago orain?

Eta ziur aski, jende errugabea hiltzen den Hipercor eta antzekoak egiteko informazioa ematen dieten horiek ere ez dira txibatoak izango. Edo eta Revillaren bahiketako txiletar mertzenarioak, edo Euskadi non dagoen ere ez dakien eta Hipercor-en dinamiteroa izan zen Caride delakoa. Eta jakina, Carmona bezalako asko ta asko ere, ez dira txibatoak, nahiz eta euren aho zabaltzearen erruz beste hamabostna ETA kide atxilotu.

Bada EAJ-k frankismoaren kontra eginiko lana dudamudatan jartzen duen ETAko preso talde bat ere, Santonãoarekin gora eta behera

dabiltzanak. Baina ez al dira ba gogoratzen (memoria txarra dutela!) gaur egun HBren eskutik Albertian batzen diren gudari horiek ere Santonãan amore eman behar izan zutelara?

Jakina, “Kinito” bezalakoak gudariak (edo sasigudariak?) direla diote, ezta? Baina ziur baino ziurrago nago KASEko pertsonaia hauek ez dituztela ezagutuko Luis de Alava y Sautu, Iñaki Sartuntún, Txomin Letamendi edo Agustín Unzurrunzaga “Xabale” bezalako izenak, benetako EUSKO-GUDARIAK maiuskulaz. Txomin Letamendi izan da Euskal Herriagatik eta bere eskubideak aldarrikatzearen gose greban hil den gudari euzkotar bakarra (eta ez astebeteko greba egiteagatik beste batzuk bezala). Xabalek berriz tranbia aurrera bota zuen bere burua Donostiara zeramatela atxilotuta; dena bere kideak ez salatzearen. K.A.Sekoek “Kinito”ren antzeko kasuak besterik ez dituzte.

Horrenbeste gezur errepikatzeak, MLNVren aldizkari irakurleak hauek sinisterra eraman ditzake; eta beharbada beste batzuk ere bai.

EUZKADI, geizki egiten dugu isilik egotean!!

Gora Euzkadi Askatuta!

ARRASATEKO EGI

Eskerrikasko

Hies-Ekimenak, boluntarioekin diharduten erakunde guztiek bezala, bultzakadaka funtzionatzen du. Aste honetan beste bultzakada on bat jaso dugu Euskadiko Kutxatik, izan ere Batzorde honen kontu korranteak 275.000 pezeta erori dira; zalantzarik gabe, Deba Garaian Hies-aren kontrako borrokaren bidean zulo bat gutxiago izango da, horri esker. Txalo bat. Eskerrikasko.

HIES EKIMENA

“Nor” da euskaldun?

ARRASATE PRESSEko adiskideok:

Gaur goizean igo dut autoaz Udala auzoko iturrira ura hartzen plastikozko “ontzietan”. Hurbiltzean iturrira, bertan dauden neska-mutil taldea (14-15-16 urtekoak?), elkarriketan “erdara batuan”, beraian artean txakur bat daukate.

Ontziak urez betetzen ari naiz eta nire buruhausteak, “nongoak izango dituk gazte honeik?”

Taldeak jarraitzen du “erdera batuan”, Besaide aldera jarraitu ala ez. Halako batean, deitzen diote txakurrari “Nor”!

Jarraian irteten dira taldekoak Besaide aldera eta neska batek esaten dio lagunari: “nik ura edan behar dut”. Uzten diot tokia eta galdetzen diot, euskaraz: “Ikastolakoak zarete?”; “Bai, Arrasatekoak”. Irteten dit “mekauen...! Ikastolakoak zarete eta hitz bakarra entzun dizuet, “Nor”, txakurrari deitzeko”. Urruntzen ari zela esan nion ez zela lotsatzen eta abar. Hau al da Arrasaten daukagun jarraitpena herria euskalduntzeko? Zer egiten dute taldetan andereño edo maixu arduradunek?

Beraz, erantzuna denon eskuetan dago.

Josu

Arrasateko herriari

Legar-gaineko bizilagunen Batzordeak, Arrasateko Egitasmo Orokorreko sumentziak aurkezteko epea zabalik dagoela-ta, 16. arean (Legar-gain ingurua) 234 etxebizitza eraikitzeke proiektuaren aurkako postura jendaurrean agertu nahi du, ondorengo arrazoiak direlata:

— Gure ustez, etxebizitza berrien kopurua (234) larre-

gikoa da. Herri honetan 1006 etxebizitza dago hutsik. Beharrezkoak ote dira horrenbeste etxe?

— Aipatutako arean etxerik asko badago, dentsitate handiko parajea da eta. Gogoan hartu Santamaña, Santa Teresa, Musakola. Gaurregun inguru horretan dagoen berdegune bakarra desagertu egingo litzateke guztiz. Horretaz gain, oinezkoendako paseoa, zahar eta gazteen dispertsiorako gune inportantea, porlanaren zakarkeria medio, desagertu egingo litzateke. Horrela bada, Egitasmo Orokor Berriak dakarren eslogana, hau da, “Arrasate habitagarri eta atsegino baten alde”, ez da inondik inora errespetatzen.

— Proiektu horrekin, Udalak eraikitzaile edo konstruktorearen interes pribatuak baino defendatzen ez dituela ematen du. Eraikitzailearen terrenoetara bide bat egiteko bedeguneak premiarik gabe indarrez hartuz.

— Gu geu ez gaude etxebizitza berriak egitearen kontra, baina, era berean, ez gauza udalaren hirigintza politikarekin ados. Gure ustez, bizitaleen premiei eta eskakizunei egokitu beharra dago, eta espansio eta gozamen guneak, baita berdeguneak ere, errespetatu egin behar dira, eta gehitu.

Bukatzeko, aipagarria da inguruko auzoetako alkate-tzak gure jarreraren alde agertu direla.

Besterik gabe, Arrasaten, 1994ko azaroan.

**LEGAR-GAINEKO
BIZILAGUNEN BATZORDEA**

ARRASATE PRESSEN oharra

Datorren astea “zubipekoa” dugu. Aldizkaririk ez eta guk ere jai. Abenduaren 16an indarberri-turik etorriko gara. Ordu-rarte.

ARRASATE PRESS



PERA

EGIZU KEINU NATURALA

Ez zaizu ezer kostatzen



Izugarri balio du



DEBA GARAIKO MANKOMUNITATEA
MANCOMUNIDAD DEL ALTO DEBA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Obra Hidrauliko eta Ingurugiro Departamentua
Departamento de Obras Hidráulicas y Medio Ambiente

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Iguatorialdia79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 (Txanda hartzeko)77 03 46
 77 07 21
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako anbulantziak45 87 44

Udaltaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (iberduero)12 01 62
 Gasa900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraloak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak79 87 77
 KIUB-OMIC79 51 55

Monterrogo liburutegia
 Monterron77 01 05

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 2
 Egunez eta gauzez: Guallar. San Antonio. Bergara.
 10,00ak arte: Amezu. Sta. Marina.

Larunbata 3
 Egunez eta gauzez: Estella. Matxiategi. Bergara
 10,00ak arte: Ruiz. Maala.

Igandea 4
 Egunez eta gauzez: Estella. Matxiategi. Bergara
 10,00ak arte: Morales. San Andres.

Astelehena 5
 Egunez eta gauzez: Mozos. Pedro Deunaren. Bergara.
 10,00ak arte: Azkoaga. Ferrerías.

Asteartea 6
 Egunez eta gauzez: Camacho. Oxirondo. Bergara.
 10,00ak arte: Español. Iturriotz.

Asteazkena 7
 Egunez eta gauzez: Puy. Barrenkale. Bergara.
 10,00ak arte: Corcuera. Musakola.

Osteguna 8
 Egunez eta gauzez: Guallar. San Antonio. Bergara.
 10,00ak arte: Irizar. Ercuín.

2 OSTIRALA

ZINEA
 "La teta y la luna" 7etan eta 10etan.

ONGI-ETORRIA
 Aitor Azkargorta preso ohiari. Aramaioko Plazan arratsaldeko 8etan. Arratsaldeko 6.30etan kotxe karabanak irtingo du Arrasatek, Arlabanen ongi-etorria egiteko.

KANTALDIA
 "Jabier Muguruza" kantariaren diska berriaren aurkezpena. Elorrioko Arriola Kultur Aretoan gaueko 11etan.

3 LARUNBATA

ZINEA
 "La Sombra" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

MANIFESTAZIOA
 "Ertzantza ez da herriarena" lemapean manifestazioa Bilbon, arratsaldeko 5.30etan La Casillan 4etan Arbolapetatik autobusak irtingo du.

NAFARREN EGUNA
 San Frantzisko Xabier eguna ospatzeko, Arrasaten bizi diren nafarrak 12etan San Juan bataiatzailearen elizan meza izango dute eta Aretxabaletako Taberna-Berri jatetxean bazkaria.

4 IGANDEA

ZINEA
 "La Sombra" 7.30etan eta 10etan.

KONTZERTUA
 Pavel Fenjuk, Nazioarteko II. Akordeoi lehiaketako izakoa irabazleak kontzertua eskainiko du Aretxabaletako Parrokian, arratsaldeko 8.30etan.

NAZIOARTEKO II. AKORDEOI LEHIAKETA

Abenduaren 4an eguerdiko 12etan harrera egingo zaie partehartzaileei. Abenduaren 5ean, lehiaketako lehen fasea. Asteartean bigarren fasea eta 3. fasea abenduaren 7an izango da. Abenduaren 8an, bukaera ekitaldia, eguerdiko 12etan Amaia Antzokian.



GIPUZKOAKO XV. AKORDEOI LEHIAKETA

Eliminatoria frogak abenduaren 3an eta 4an Ferialekuko SFX ikastolan izango dira; finala, berriz, abenduaren 6an, asteartean, Amaia Antzokian eguerdiko 12etan.

5 ASTELEHENA**ZINEA**

"LA Sombra" 7etan eta 9.30etan.

6 ASTEARTEA**ZINEA**

"La Huida" 7etan eta 9.30etan.

SAN NIKOLAS EGUNA

Eguerdiko 12etan 10 urtetik beherakoentzat Bolo-Boloa Herriko Plazan. 12.30etatik aurrera, 10 urtetik gorakoentzat.

AKORDEOI LEHIAKETA

XV. Gipuzkoako akordeoi lehiaketako finala, Amaia Antzokian eguerdiko 12etan.

7 ASTEAZKENA**DURANGOKO LIBURU****AZOKA**

Abenduaren 7tik 11a arte liburu azoka Durangon.

8 OSTEGUNA**ZINEA**

"La Huida" 7etan eta 9.30etan.

AKORDEOI LEHIAKETA

"Arrasate Hiria" II. Nazioarteko Akordeoi Lehiaketaren bukaera ekitaldia. Eguerdiko 12etan, Amaia Antzokian.

EMAKUMEEN JARDUNALDIAK

Abenduaren 8, 9 eta 10erako Emakumeen jardunaldiak izango dituzte Leioan.

BEDOÑAKO JAIK

9etan etxafleroekin jaien hasiera. 10etan buruhandiak Auzoko eskola-etxe inguruan. 11etan Umeentzako jolasak. 12.30etan meza. Ordubatean dantzariak. 3etan oka jokua, galdera jokua eta ping-pong eta futbolin txapelketa. 6etan txokolatada Loramendi elkartean.

ANTZERKIA

Abenduaren 9an, Karrika antzerki taldearen "Pecata Minuta" antzezlan. Amaia Antzokian, gaueko 10.30etan. Sarrera: 700 pta eta gazte txartelarekin 500 pta.

**SAN NIKOLAS EGUNA**

Bolo-Boloa Herriko Plazan asteartean. Eguerdiko 12etan 10 urtetik beherakoentzat eta 12.30etan 10 urtetik gorakoentzat.

KONTZERTUA

E.H Sukarrak eta Etsaiak taldeen kontzertua Gazte-txean, abenduaren 10ean, larunbatean, gaueko 10.30etan.

HITZALDIA

Ingurugiroaren egoerarekin kezkatatu dauden pertsonentzat hitzaldia, abenduaren 14an arratsaldeko 7etan Pleno Aretoan. Talde apolitikoa sortu nahi da eta nahi duen guztiak har dezake parte. Taldearen helburua Leintz Bailaratik ingurugiroaren alde lan egitea.

KATUEN TESTAMENTUA

Oskorri, Kukubiltxo eta Kepa Junkerak emaniko "Katuena Testamentua" ikuskizuna abenduaren 10ean. Musakolako kiroldegian arratsaldeko 5etan. Sarrera: 400 pta.

BEDOÑAKO JAIK

Abenduaren 8, 10 eta 11an Bedoñako jaiak ospatuko dira. Larunbatean, goizeko 9etan etxafleruak, 9.30etan ehiza egun berezia Auzoko zelaietan. 10etan auzoko gazteen arteko futbol partidua. 12etan buruhandiak. 3etan gazteentzako jokuak, pilota partiduak eta zinta karrerak. 6etan Mus eta Briska txapelketa Loramendi elkartean. 9etan Auzo Afarria eta ondoren dantzaldia. Abenduaren 11an, igandea. 10etan gazteentzako jokuak. 12.30etan Meza nagusia. Ordu batean herri jokuak.



“Egun batean Setien gotzaiak dei egin zidan eta Eskoriatzako parrokiako administratzaile izan nahi nuen galdetu zidan. Administrazio horrek errekan gora Leintz Gatzagarainoko guztiaren ardura zekarrela jakinik onartu nuen. Non nengoen enteratzen aste batzuk neramatzala, Arrasateko Artzipretea aukeratzeko bozketak egin genituen eta neuregain erori zen kargu hori.

Kontu hori lagun batzuekin komentatzean, nire indar eta denbora gutzia eskatzen zuen familia berria nuela esan nien. Honela esan zidan norbaitek: “Izan ere, orain arte zure andreagaia kooperatibismoa izan da. Etorbizunik gabeko gauzak utzi egin behar zenituzke”. (...)

1956an hasi eta euren lan-zikloa amaitu dutenek MCC bezalako errealitate bikaina utzi digute. Gaur egun, hemen eta orain, ez gaude 1956an baino okerrago. 1994tik hurbil dagoen etorkizuna 2.004. urtea da eta etorkizuneko apostua egitea gustatuko litzaidake: ‘2.004. urtean baietz kooperatiba edo MCC edo antzeko zerbait izan!’”.

Jose Mari Mendizabalek

TU lankide

“Baina noiz arte bizitasun hori? Plano hotz batzuek diotenez, denpora gutxi barru eta zerbait egin ezean, inguru zoragarri hau, gure Euskal Herriko beste hainbatekin gertatu den bezala, hainbat proiektu izugarritz zeharkatua izango da: Abiadura Handiko Trena, trenbideen loturagune izango den Y famantua eta Maltzaga eta Arabako lautada lotuko dituen bide azkar hori (autopista agian?). (...)

gizarte osoaren ‘mesedetan’ edo horren izenean egin diren obra handi zein txikiek nekazari lurrik onenak zeharkatu dituzte, inolako begirunerik gabe (...)


‘zenbat eta gehiago hobe’ esanaz, tartean dagoenari begiratu gabe, errezenetik pasatuz, soilik nora iritsi nahi den begiratzen duena”.

Maite Aristegi 94-11-16

egin

Zergatik ordaindu behar diote federatuek AUKEAri?

Zerbaiten erabiltzaileak diren neurrian eta berdintasuna bultzatzeko, kirol taldetako federatuek ere zerbait ordaindu behar diote AUKEAri. Kirol instalakuntzak erabiltzen dituzten ez-federatuek zerbait ordaindu behar badute, besteenganako elkartasunagatik, federatuek ere gauza bera egin beharko lukete. Erabiltzaile normalak ez du zertan kirol taldeen finantziazioa beregain hartu behar. Federatuek abonatu normalak kontutan hartu eta zerbait aportatu behar lukete.



Agustin Ibarluzea
“Txispas”

AUKEAko Lehendakaria

Gure asmoa ez da diru kopuru bat irabaztea, esan bezala, kirolari guztien arteko berdintasuna bultzatu nahi dugu.

Eskatzen zaiena gainera, gutxiengoa da. AUKEAren aurrekontua 150 milioitakoa da; 90 milioi Udalak ematen ditu, beste 60 milioi abonatuak ordaintzen dutenetik eta beste ekintza batzuetatik lortzen dira eta federatuei eskatzen diegunaz 4 milioi ere ez ginituzke lortuko. Tarifa normala dutenak ordaintzen dutena baino %25 gutxiago ordaintzea eskatzen diegunez, kirol instalakuntzen erabilera eta kirol medikuaren zerbitzua dohainekoa dutenez eta subentzioak ere jasotzen dituztenez, gutxiengo bat eskatzen diegula uste dut.

AUKEAren asmoa, urriaren 11n plenoak ahobatez onartu zuen neurri hori aurrera eramatea da. Urte bat baino gehiago egon gara negoziaketetan baina kirol taldeek ez dute aldatibarik aurkeztu; ezer ez ordaintzearen jarrera ez dute aldatu. Federazioari ezer esan gabe ordaintzen dioten bezala, besteenganako elkartasunagatik hemen ere gauza bera egin beharko lukete. Neurri hori gainera, beste herri gehienetako kirol taldeek ere badute eta arazorik gabe ordaindu izan dute.

Sikol

*Detalle bakarra,
mila hitz baino hobea*

Emakume eta gizonezkoentzako lentzeria

Olarte, 31 ARRASATE Tfnoa: 79 89 32



Autobus urdina

Astelehenean, "Egizu Keinu Naturala" kanpainaren barruan, zaborraren erreziklaiari buruzko informazioa ematera etorri zen Diputazioko Ingurugiro Departamentuko autobus urdina. Autobus barruan jarritako erakusketaren bidez papera, beira eta beste hondakin batzuk horretarako dauden edukinontzietara bota behar direla eta hainbat gauza zaborretara bota baino lehen, berrerabil daitezkeela ikasi zuten 6. mailako gaztetxoek.

Sutea

Zapatuan sutea izan zen Zarugalde kaleko lokal batzuetan. Itxura denez, kartoiak zeuden lokal horretan eta mutikoren batzuk piztu zuten sutea.

Udazkeneko 4. Jaialdia

Zapatu arratsaldean Udazkeneko 4. Jaialdia ospatu zuten Eskoriatzan Al Andalus elkartekoek. Andaluziako ikuskizun eta dantzez gain, Errioxako, Estremadurako eta Euskadiko dantzak ere izan ziren ikusgai. Jaialdiak gauera arte iraun zuen eta jende asko hurbildu zen Eskoriatzako Kiroldegira.

180 Kilo gaztaina

Gazte Mobidakoek 180 kilo gaztaina erre zuten zapatuan, inguruko auzoetako baserrietatik ekarritako zazpi tanboliñetan. Herriko Plazara gerturatu zirenek, gurabeste gaztaina jan eta sagardo edateko aukera izan zuten. Gazte Mobidakoak orain dela hiru urte hasi ziren jaialdi hori egiten.

**Hirigintza Diputatua Arrasaten**

Astelehenean, Gipuzkoako Diputazioko Hirigintza eta Arkitekturako diputatua Anton Arbulu eta teknikariak Arrasatera etorri ziren, Udal Egitamu Orokorraren aurrerapenaren berri jasotzera. Diputatuak, Olandixon egin asmo den tunela eraikitzeak lehentasuna duela eta horretarako erakunde desberdinen inplikazioa garrantzitsua izango dela azpimarratu zuen. Planu sistema guztia digitalizatu eta informatizatu duen lehenengo herria Arrasate izan denez, Udala eta bertako teknikariak zoriondu eta egitamuaren ikerketa lana egiteko Diputazioak 28 milioi emango dituela ere esan zuen.

Egitamuaren gainean erakusketa herritarren %12ak bisitatu duela eta horien artean %60ak kontsultaren bat egin duela adierazi zuen, Jose Mari Loiti Hirigintza batzordeburuak.

Suhiltzaileen protesta

Joan den ostiralean, Zubillagako parkeko hainbat suhiltzailek protesta egin zuten Portaloian. Sua itzaltzeko erropak jantzita, Diputazioak ezarri nahi dizkien lan-baldintzei buruzko informazioa ematen zuten orriak banatu zituzten. Suhiltzaile horien esanetan, Diputazioak parkeak irekitzen ditu, baina parke batzutan bi suhiltzaile bakarrik daude lanean. Profesionalen ordez boluntarioak jartzeak ere kalitatea txartzea dakarrela adierazi zuten.

**Giza-katea**

Ertzantzaren jokaera salatzeko, HBk deituta ostegun arratsaldean giza-katea egin zen. Arratsaldeko 7etan Portaloitik Ertzaindegira abiatu zen giza-katea, "Errepresioa ez da bidea" zioen pankarta eramanez.

HBren prentsaurrekoa


HBko Gipuzkoako diputazioko 8 batzarkidek eta inguruko Udaletako hainbat ordezkari, prentsaurrekoa eman zuten ostegunean. Azpiegiturak gaitzat harturik, Antxon Arka batzarkideen bozeramaileak, bailarako egoera ekonomikoa hobetzeko errepidea konpontzea beharrezkoa dela adierazi zuen. Horrez gain, datorren urteko Diputazioaren aurrekontuetan, eskualde honetarako dirulaguntzak zuzentzea eskatuko dutela esan zuen.

Hitzaldia

"Mondraueko euskerie zelakue da?" izenburupean, hitzaldia eman zuten Gotzon Garatek, Deustoko irakasleak eta Jerardo Elortzak, UNEDeko irakasleak. Bizkaiera euskalkia aberatsa dela eta estrukturarri dagokionez, hemengo euskara onenatarikoa dela azpimarratu zuen Garatek. Belarriariko gogortxo den arren, hemengo euskara zoragarria ere badela gaineratu zuen irakasleak. Elortzak, berriz, hemengo euskara jatorra baserrietan ondo gorde dutela baina kalean zertxobait galdu dela esan zuen.

HILDAKOAK

- Pedro Tejedor Alonso. 20an. 76 urte.
- Felix Portalo Martin. 22an. 63 urte.
- Vicente Navero Dominguez. 22an. 68 urte.
- Juan Uribetxebarria Mondragon. 22an. 85 urte.
- Felisa Etxebarria Goenaga. 22an. 80 urte.
- Juan Larrañaga Aranzabal. 23an. 88 urte.
- Emilio Fuentes Hernandez. 24an. 89 urte.
- Prudencio Pildain San Miguel. 25ean. 73 urte.
- Antonio Sanchez Jimenez. 25ean. 64 urte.



* JOSE MARI ASTIGARRAGA
"SAGARRAGA"

Euskaldunon genozidioa

Pasa den astea samingarrria izan zait: Euskal buruzagiak orroaka eta mehatxuka. Herriaren normaltze ametsa, xaboi ponpa letxe, lehertua, behin eta berriro lehertua.

Jasan ezina egin zaizkit beti Herri eskubideen ukatzaileak, herri-nortasunaren ezabatzaileak, baina beti ere jasanezina edozein pertsonaren indarkeriazko heriotza, tortura, egiaren eta gertakizunen manipulazioa, mehatxua, beldurra eta gauzak esan eta adierazteko askatasunik eza.

Azkenengo hamarkadetakoa nahia ez bazen, Euskaldunon eta Espainiarren arteko dema eta konbibentzia zibilizatuaren zailtasunak, hauxe bakarrik falta genuen orain: Euskaldunok, euskaldunentzat etsai eta... hil gai!

Noiz ikasiko dugu ara-

zoak arrazionalizatzen? pausoz pauso konpontzen? alderdien interesak herriaren onerako gaintitzen? besteen eskubideak errespetatzen? hauteskundeen (herriaren aukera erabakiorra) ondorioak onartzen nahiz irabazleekin edo galtzaileekin ez ados egon?

Badirudi Autodeterminazioa dela oraingo giltzari eta pake bidea, baina autodeterminazio maila asko daude: kontzertu kultural edo ekonomiko batetik hasi eta independentziaraino. Bestalde,

1. Autodeterminazioa hitza, bere edukian zehaztu gabe, herria engainatzeko eta manipulatzeko erabiltzen dute dogmatikoeak eta inposatzaileak.

2. Herrien egoerak eta lortu nahiak historikoak dira, prezesa bat eramaten dute. Horrek eskatzen du gaur

eskatzen dena, bihar ez-nahiko gerta daitekeela. Momentu historikoa errespetatu behar genuke denok: gaurkoa nahia edo gehiegi dela pentsatzen dutenek eta nahikoa ez dela pentsatzen dugunok.

3. Prozesuak medio batzuk erabiltzen ditu: politika, burruka armatua, demokrazia... Medioak ere herriak erabaki behar ditu.

4. Non, nola? Hauteskudeetan. Hauteskudeetan aukeratzen ditu herriak, hurrengo hauteskundeak arte, herritarren helburuak, prozesu eta medioak defendatuko dituzten politikoeak.

5. Horregatik hauteskundearen emaitzak eta Legebiltzarretik sortzen diren legeak —aldagarriak izanik ere politikoak bezala— errespetatzen ez duen taldea edo alderdia, Herriaren aurka doa, nahiz salbatzaile eta defendatzaile aitortu bere burua eta azaldu: Herriaren eta herritarren giza-eskubideak zapaltzen ditu.

Printzipio hauek kontutan, epaitu zerorrek, irakurle, azken aldiko gure egoera eta zirkunstantziak. Nereztat, negargarria.

* PARROKOA

USTEAK USTE

USTELAK USTEL

Palomino, Roldán, Ardantzaren koinatua... egunero eta ia orduro ustelkeriaren baten berri dakarkigu prentsak. Itxura denez ia inor ez da harritzen benetako eskandalozko zenbakiren batzuk agertzen ez badira. Eta are gehiago, ez dugu inongo muzintz egiten gure kide, inguruko edo begi onez ikusten dugun norbait baldin bada "ustezko erruduna". Azkenean laguntza, familiako... norbait mesedetxo bat egitea, bakoitzak duen ahalmentxua, nola ez erabili?!... Ene!, oso jatorra baita... Jesus! behar handia baitu... Azkenean, nik egiten ez badut, ez pentsa bestea ere garbi garbi sartuko denik!...

Ez noa, ezta gutxiagorik ere, lehen azalduko ekintza mardul horiek inondik inora zuritzera, baina halako historiez ezer irakurtzen edo entzuten dudana bakoitzean, beti gauza bera datorkit burura: ustelkeria, poderea bezala, ez dela aidean, hutsean eusten, behetik lantzen hasten den bizitzaren filosofiak, ustelkeria txikiak, poderearen kontzepzioak fin eta estu hariikatutako sareak bakarrik mantentzeko.

NEKANE SAN MIGEL

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuademazioak
Koloretako fotokopiak
Planoen erreproduzioa
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

ALTAMIRA KLINIKA

Mikrotxip-aren
betebeharreko
kanpaina
abenduaren 31ra arte

J. L. Iñarra, 24 Behea
☎: 79 74 89

S. CARRASCAL S.L.

Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak


Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6-1.a
Tfnoa /FAX: 79 01 82

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84
ARETXABAETA



Parrokia berritza 420 milioi inguru kostako da.

Herrian 140 milioi batu nahi dira parrokia berritzeko

San Juan Bataiatzailearen parrokia zahar-berritzeko sortu zen batzorde eragileak kanpaina bati ekingo dio parrokiako obrekin jarraitu ahal izateko. Diputaziotik eta Udaletik jasotzen ari diren eta jasoko duten laguntzaz eliza guztia berritza ezinezkoa dela eta, herrian zein kanpoan bizi diren mondrauetarrei, nahiz aurrezki kutxa eta enpresei dirulaguntza eskatuko zaie. Horretarako, egunotan 6.000 eskutitz banatuko dira etxez-etxe eta laguntza erabakiz gero, bi urtetan zehar eta hileko maiztasunez zenbat diru eman nahi duen erabakiko du bakoitzak. Ondoren, pertsona batzuk eskutitzak jasotzeaz arduratuko dira eta baiezkoa edo ezezkoa eman arren, erantzunak sekretupean gordeko dira. Guzti horrekin lotuta, gainera, orain arte parrokiaren zein obra egin den azalduko duen bideoa ikusgai izango da, Elkoro dendan jarriko duten pantaila erraldioan.

Kanpaina horren bidez, parrokiaren

barrukaldea konpontzera zuzendu nahi diren 140 milioi lortu nahi dira. Batzorde eragilekoek, erronka garrantzitsu horri herritarrek ondo erantzun dio eta uste dute eta modu handi batean barruan egin nahi diren obren bultzatzaileak arrasatearrak izango direnez, abendu bukaera alderako deiak zelako eran tzuna izan duen jakiteko moduan izango direla espero dute.

Parrokia berritza 420 milioi inguru kostako da eta Udaletik, Diputaziotik eta herritarrengandik, atal bakoitzetik 140 milioi lortzea da batzordearen asmoa. Orain arte, Diputazioak eta Arrasateko Udalak eman dute lehen faseko obrak egiteko dirua. Lehen fasean zehazki, 102 milioi gastatu dira teilatu berria egiteko eta dagoeneko erdikaldeko aurrekaldea berritzen ari dira. Hori bukatu ostean barrukaldea, gainerako aurrekaldeak, dorrea eta ateska konpondu nahi dira. Bost urte barru, parrokiaren errestaurazioa bukatuta izatea uste dute.

Isurketa

Azaroaren 21ean Deba Ibaira egin zen isurketa Fagor Clima lantegitik egin zela jakin da. Fagor Climako arduradunek adierazi digutenez, gura barik egindako isurketa izan zen. Itxura beldur, depuragailuaren balbula ireki egin zen eta denbora tarte txikian zabalik izan arren, errekarera pasa zen isuria. Nahiz eta oraindik isurketaren emaitzik izan ez, Fagorreko arduradunek kutsakorra ez zela uste dute, eurek esan bezala isuriak azidoak eta sustantzia kimikoak kenduta zituen eta.

Ezustean egindako zerbait izan arren, isurketak depuragailu eta errekararen artean segurtasun falta dagoela erakusten duela adierazi du Eki ekologista taldeak. Denbora gutxi barru, Confederación Hidrográfica del Nordek isurketaren emaitza bidaliko du eta horren arabera Fagorri isuna jartzea erabakiko du ingurugiro sailak. Bestalde emaitza horren arabera, Udalak espedientea zabaltzea erabakiko du.

Monterronerako laguntza

Udalak 2.774.453 pta eman ditu Monterron Kultur etxerako ekipamendua erosteko. Diru hori, bideoteka gela antolatze eta beharrezko diren beste gauza batzuk erosteko erabiliko da.

Txitxinpe
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

Begoña
lurridetgia
Drogeria
Jostailuak
Opariak

Gipuzkoa Etorb. 33,
Musakola Auzoa,
Tfnoa: 79 03 73

Erdiko kale. 79 19 37


ILEA

Ferreries. 79 87 62

IZASKUN
Arraindegia

Freskoena gurean
aurkituko duzu

Araba etorbidea, 3
Eskatu pabilioia. Dktr Bañez, 13
☎: 79 18 86 ☎: 79 15 10



Abenduaren 22tik urtarrilaren 1era arte izango da erakusketa Arrasaten.

Autopista proiektua ikusgai jarriko du Debasak

Maltzaga-Urbina autopista proiektua ikusgai jarriko du Debasak, Eusko Jaurlaritzak eta Araba eta Gipuzkoako Diputazioek eraturako elkarte publikoak. Erakusketa ibiltaria Arrasate, Eibar, Donostia, Bergara eta Gasteizen izango da ikusgai eta hasiera Arrasaten emango zaio, abenduaren 22an.

Herrian, Lau Bide inguruan jarriko duten 600 m²-tako harpa handian urtarrilaren 1era arte izango da ikusgai Maltzaga-Urbina autopista proiektua. Aretxabaletako Diara enpresak prestatu dituen panel eta argazkien bidez eta Debasaren planoekin, autopistaren ibilbidearen inguruan dauden

alternatiba desberdinak zeintzuk diren azalduko da. Era berean, garai bateko errepide garrantzitsuak zeintzuk ziren ezagutzeko modua ere izango da. Erakusketa ibiltari horren helburua, jendea informatzea eta autopista nondik pasako litzatekeen erakustea da.


Idatzi baten bidez Eguzkik Debasaren jarrera salatu du, erakunde publikoak autopista Maltzagan hasi eta Arabako Etxabarri Viña herriraino iritsiko dela azaldu du eta. Eguzkiren ustez, zentzu gabeko luzapena egitea litzateke eta gainera, lur emankorrenak suntsituko liriateke autopista toki horretaraino helduz gero.

Omenaldia "Kantori"

Gaur arratsaldean omenaldia egin behar zioten Aitor Azkargorta "Kantori", sei urtez eta zortzi hilabetez kartzelan egon ondoren, gaur bertan aske utzi dute eta. Aitor Azkargorta aramaiotarrak 1985ean ihes egin zuen eta hiru urte exiliatuta egon ondoren, 1988an atxilotu egin zuten. Araba Komandoaz zerikusia izan zuela eta, sei urteko kartzela zigorra ezarri zioten. "Kantori" estatuko hainbat kartzelatan egon da eta osasun arazoak ere izan ditu.

Seinalizazioa

Arabako Diputazioak Udalera bidali duen idatzian esaten denez, Landa inguruan jarri asmo dituzten seinalizazioetan, Arrasate eta Bergara non dauden adieraziko duten seinaleak jarriko dira. Ibai-Arte merkatarien elkarteak Arabako Diputazioari probintzia horretan ere Arrasate non dagoen azaltzen zuten seinale gehiago jartzeko eskatu ziolako bidali dute idatzia.



Alkoholarekin arazoak daukazu?
Agian,
"Alkoholiko Anonimoek" lagundu ahal dizute!!

Alkoholiko Anonimoak

3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38

I
R
T
A
B
E
R
N
A

**Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11**

ARRASATEN



Umeentzako oinetakoak eta berezitasunak


Zerkaosteta, 15
Tfnoa: 79 61 13

ZENTRO
PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

- Diagnostikoa-Orientazioa
- Estimulazio goiztiarra
- Erreabilitazio funtzionala (Psikomotritate eta hizkuntz bereziera)
- Logopedia
- Laguntza terapia
- Mota guztietako eskola arazoak, enuresia (Ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
Tfnoa: 79 48 77
ARRASATE



Momentu honetan, murgiltze ereduari ikasten dute San Andres Eskolako 185 ikasleek.

25 urte bete ditu San Andres Eskolak

San Andres Herri Eskolak zilarrezko eztaiak ospatuko ditu ikasturte honetan. Orain dela 25 urte, Arrasaten gertatu zen demografia hazkundeari erantzuteko eraiki zuten San Andreseko eskola eta horren sorreraz, desagertu egin ziren Gazteluondo eta Viteriko eskola zaharrak eta baita Udala, Gesalibar, Bedoña eta Garagartza auzoetakoak ere.

Xabier Arruti, San Andres Eskolako zuzendariaren adierazi digunez, "urte guzti hauetan euskara eta pedagogia arloetan lortu dena garrantzitsua izan da. Erdalduna izan den auzo batean euskara hutsez irakasteak aurrerapausu handia ekarri du". Hasierako urtetan, A ereduari izan zen nagusi San

Andreseko Eskolan baina ikasleek eta gurasoek euskararekiko jarrera ona zutela ikusirik, B ereduari jarri zuten. Eredu horrek euskalduntzeko ez zuela balio ikustean, berriz, murgiltze ereduari sartu zuten eta ordutik eredu horretan ikasten dute 185 ikasleek. Zuzendariaren berbetan gainera, hemendik pare bat urtetara euskara hutsez irakastea espero dute.

Urteurren garrantzitsu hori ospatzeko, 94-95 ikasturterako hainbat ekitaldi antolatu dute San Andres Eskolakoek. Hilabete honetan zehar, batez ere ikasle eta gurasoei zuzendutako hitzaldiak izango dira eta datorren urterako, berriz, beste era bateko ekintzak egitea dute pentsatua.

Euskal Y-a

Ingurugiro Politikako zuzendaritza nagusiak, Abiadura Handiko Trenea edo Euskal Y-ari buruz bidalitako dokumentazioaren ingurugiro azterketa egin dute Udalean. Udalaren ustez ingurugiroari dagokionez, Lezetxiki eta Kobate inguruak izan beharko lirateke kontutan eta gainera, Udalaizteko lurrazpiko urei buruzko ikerketa geologikoa eta zabortegiei buruzko azterketa egin beharko lirateke. Ingurugiro azterketa, E.Hko hainbat Udalek eta afektatuek egin dute.

Takolo bidegurutzea

Takolo bidegurutzea hobetzeko proiektua idazten hasteko, baldintza teknikoen plegua ontzat eman duela jakinarazi du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Proiektua idatzi ondoren, Diputazioak bidegurutzea hobetzeko obrak adjudikatuko ditu. Obra hori egiteko 6 milioi gastatuko ditu Foru Aldundiak.

NEREA



Umeen jantzietan LIKIDAZIOA

Astlehenean egun osoz zabalik



San Frantzisko Xabier ikastolako 7. mailako talde elebiduna Elgoibarko Aubixa Barnetegian egon zen joan zen astean, aste osoz. 21 ikasle joan dira eta bi monito- **rerren laguntza izan dute han. Ekintza desberdinak egiteko aukera izan dute: pelikula egin, dpositibiden bidez ipuinak osatu, bertso tailerra eta herri kirolak, besteak beste. Neska-mutil hauek euskaraz trebatzeko helburuz joan dira barnetegira eta guztiz motibaturik etorri direla esan digute.**

Bergarako OLA Opel banatzaileak bisita garrantzitsua egon ziren; bertan, instalajaso zuen asteartean. **Erhard L. Spranger**, Estatuko Opel enpresako zuzendari orokorra eta **Juan Manuel Lumbre-** **ras** salmenta zuzendaria egon ziren; bertan, instalakuntzak ikusteko eta Opel autoen salmenta Bailara honetan nola doan jakiteko aukera izan zuten.

ARRASATE PRESS

Geure buruari zorionak eman beharrean gaude, izan ere, etxe honetan egindako lan batek kazetaritza arloko Emakunde sarietan, prentsa eta informazio orokorraren atalean ohorezko aipamena jaso du; **Arantzazu Loidik** emakumeen lanaldi bikoitzari buruz ARRASATE PRESSEKO 252. zenbakian idatzi zuen artikulua.



MARGOAK
JUANMA
Margoak, paperak, gotelea e.a.
Agerre kalea, 5 3. ezk.
Tfnoa: 79 69 17

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte eta ostiral
5etatik 8etara.
Tfnoa: 79 26 99

ZUBIZARRETA
TAILERRAK
Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tfnoa: 79 15 65

S. CARRASCAL S.L.
Bertan egindako:
• Sukalde altzariak
• Armairu enpotratuak
• Trastelekurako armairuak
Fabrikaren erakusketa
Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tfnoa /FAX: 79 01 82



Uribe auzoan 14 zuhaitz hauek eta saneamendu zuhaitzik gabe geratuko, bota dituzte, azpian dagoen hodietan kalte gehiago ez estolderian kalteak eragiten dituztelako. Sustrai dute Udaletxeko langile- eta, sustar txikiagokoak, handiak zituzten zuhaitz ek. Hala ere, kalea ez da jakina.

IZEN PROPIOAK

//// //// //// //// //// ////

● Luma bidezko

idazkeraren V. Lehiaketan hainbat arrasatearrek jaso dute saria; Gazteen mailan

Eneritz Tirados

arrasatearra geratu da 4. postuan. 5.ean **Amets**

Ugalde eta 6. ean **Leire**

Zenigaonaindia. Maite

San Vicentek eta **Elena**

Espartzak diploma jaso

dute. Helduen mailan

Martin Garai

Atxabaltarrak jaso du diploma.

● Jose M^a

Arizmendiarieta IX.

lehiaketan, A mailan lehen

saria Almen ikastetxeak

jaso du, "Nolako gogoia,

halako giroa" lanarekin.

Egileak **Ane Arenaza,**

Done Larrea eta **Olatz**

Pagaldai izan dira.

Espe San Vicente eta

Juanmi Mendieta

arrasatearrak urriaren

10ean ezkondu ziren

Uribarriko elizan. Bazkaria

Gure Ametsa jatetxean izan

zuten. Ezkon-bidaian

Toronton, Floridan egon

dira. Zorionak bikote!



Epelde

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94



PEUGEOT

Salmenta eta
zerbitzua

**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

NAROKI

Urrezko bitxiak

**ERDIKO KALE, 23
ARRASATE**

SARRERAK
OHIZKO LEKUETAN SAIGAI
AURREZ: 1000 pztia.
40 libera.
EGUN BEREAN: 1200 pztia.
52 libera.
HAURRAK: 300 pztia.
12 libera.

ANOETA KO
BELODROMOAN.



Festakaldurak Festa

530etan: MAIDER eta ALAITE • AIRE AHIZPAK • TUMBADITO, SALSA TALDEA • PAJALZOAK • MIKEL MARKEZ • PEKATA MINUTA • JABI MUGURUZA • IÑAKI EIZMENDI • GODENAPELQUARTET • BERTSOLARIAK • BITOR AHAPE • ANDRA MARI KORALA

ZALDIBARKO Txapelketa

Futbito 94-95

Babesleak: JMA, Kajoj taberna eta Arrasate Kirolak



Txapelketak ez da etengo abenduko zubian

Azkenean abenduko zubian etenik ez egitea erabaki dute antolatzaileek. Zaldibarko txapelketa, beraz, normaltasunez jokatu da zapatu eta domeka bitartean. Gabonetan, ostera, 24an eta 25ean ez da txapelketarik jokatu, ezta 31 eta 1ean ere. Urtarrilean, berriz, Errege Egunean, hau da, 6an, ostiralez eta ondorengo egunetan, 7an eta 8an, zapatu eta domekan, Zaldibarko txapelketa jokatu egingo da. Lehen fasea bukatzeko 11 jardunaldi falta dira, gero eta gutxiago, eta bigarren fasera 8 talde pasako dira. Hori dela eta, sailkatu nahi duten taldeak az-

ken ahalegina egin beharrean daude, euren burua hurrengo fasean ikusi nahi badute behintzat. Bestalde, Zaldibarko porteriak kantuan egin dituztela adierazi digute antolatzaileek. Zaldibar berez frontoia da, pilotan jokatzeko tokia eta itxura denez, txapelketako neurketak bukatzen zirenean, jendeak berriro ere porteriak montatu egiten zituen futbitoan jokatzeko; futbitoan jokatzea ez da debekatzen baina gero porteriak bere lekura ez eramatea bai. Arrazoi horrengatik porteriak "josi" beharrean aurkitu da antolakuntza.

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein
MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84

Epelde

- Estudioa
- Ezkontzako erreportaiak
- Bideoa
- Argazkiak

Iturriotz, 24
Tfnoa: 79 19 71

Maixu Arano, 8
Tfnoa: 79 26 23



Futbito Txapelketa

A taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
SALENCO Y KONP.	8	7	0	1	43	18	14
BUKANAK	8	7	0	1	36	22	14
ZULOAK	8	5	3	0	30	19	13
CERVE, LEINTZ	8	6	0	2	43	17	12
ADELAIDA HAIZEA	8	5	2	1	33	18	12
FOSFOROS	8	5	1	2	28	11	11
KRISKIBALDA	8	5	0	3	27	27	10
HIREI	8	4	1	3	41	26	9
ARRAS. KIROLAK	8	3	3	2	36	30	9
ZOTZ	8	3	2	3	20	22	8
FRAGUEL GOL	8	3	1	4	25	28	7
LOS DALTON	8	3	1	4	27	34	7
ATERPE	8	3	1	4	22	29	7
GANBELAS	8	2	2	4	28	24	6
EZT. EGIN ARTE	8	1	3	4	22	49	5
INSERT COIN	8	2	0	6	26	41	4
BAYER LEINTZ	8	1	2	5	22	40	4
ILUNA TABERNA	8	1	1	6	19	45	3
ASTOEN VILLA	8	1	1	6	28	44	3
STRAUSS	8	1	0	7	26	38	2

B taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
TRIKITI	8	8	0	0	56	10	16
PEPELUS	8	7	0	1	45	18	14
LOS DIMY	8	6	1	1	53	17	13
SUMI. UGARTE	8	5	2	1	36	14	12
PETROLEROS	8	5	1	2	39	19	11
TXEYENEX	8	5	1	2	41	22	11
NUEBO TABERNA	8	5	1	2	36	27	11
UGLYS TXINATO	8	4	2	2	54	23	10
PUB PEOPLE	8	5	0	3	40	33	10
TOTEM	8	3	3	2	34	23	9
BERANGO SUK.	8	4	1	3	25	22	9
NO COMMENT	8	3	2	3	22	41	8
DANOK LAGUN	8	2	3	3	31	29	7
ANBOTOSTE	8	2	2	4	24	30	6
MONYTERREY	8	1	2	5	18	46	4
ARRASATE ZOO	8	1	1	6	18	52	3
EZK. HONTZAK	8	1	1	6	11	44	3
TOVARITX	8	1	0	7	11	50	2
ORKATZ	8	0	1	7	17	53	1
LA BANDA	8	0	0	8	17	55	0

C taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
IRATI STS	8	8	0	0	48	14	16
AUTOS MURU	8	6	0	2	36	12	12
EQUUS	8	6	0	2	44	24	12
ORLANDO PIRATAS	8	5	1	2	34	18	11
LOR.I POTROAK	8	5	1	2	24	17	11
PERRAHOTSA	8	5	0	3	24	18	10
FRANTZISKANNER	8	5	0	3	28	22	10
KE OXTIAS!	8	5	0	3	35	32	10
KOKA JUNIORS	8	4	2	2	22	20	10
HARTZANKOS	8	4	1	3	26	21	9
NABARROS	8	4	0	4	30	35	8
FOTO IMAGEN	8	2	2	4	27	34	6
EXCA. LETE	8	3	0	5	22	20	6
BODISCA	8	3	0	5	24	33	6
JOTAKABAU	8	1	4	3	20	33	6
BANEUKO	8	2	1	5	15	20	5
POTROSORRI	8	2	0	6	22	37	4
TXOKO TABERNA	8	1	2	5	13	36	4
D.K.B	8	1	0	7	18	39	2
LEYA	8	1	0	7	20	50	2

D taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	8	7	0	1	45	15	14
INGENIERIA INT.	8	6	1	1	39	13	13
AC SURCOS	8	6	1	1	48	25	13
LOS HEREDIA	8	6	0	2	41	26	12
MIKELOS	8	6	0	2	45	20	12
D.A.IRIZTU	8	4	3	1	37	23	11
OJO AVISORE	8	5	0	3	34	26	10
SOKOAKOAK	8	4	2	2	27	22	10
ANORTHOSIS AGU	8	5	0	3	24	23	10
BZ SISTEMAS	8	4	1	3	22	22	9
LAUTHERBRUNER	8	4	0	4	32	34	8
KAKAJAURI	8	4	0	4	27	30	8
BORROCK 'N ROLL	8	3	1	4	30	27	7
ALTZA PORRU	8	3	1	4	21	25	7
MOTZ	8	2	1	5	33	25	5
TRONKOTEAK	8	1	3	4	24	42	5
TEODOLITO	8	1	0	7	18	29	2
SUKAR	8	1	0	7	20	42	2
RESAKAS	8	1	0	7	19	60	2
ELISABETH	8	0	0	8	11	48	0

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktoarea

- GENITALETAKO MINBIZIAREN PREBENTZIOA
- ANTISORKUNTZA
- MENOPAUSIA
- BULAR-PATOLOGIA
- ZIRUGIA

- HAURDUNALDIA
- JAIKO AURREKO DIAGNOSTIKOA
- ANTZUTZE KIRURGIKOA
- ANTZUTASUNA
- GINEKOLOGIA PSIKOSOMATIKOA

Prezio bereziak 25 urtez beherako, etxekoandre eta 3. adinakoentzat
(Lagun-Aro Asegurua, igualatorio mediko-kirurgikoa,...)

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramon M^a Lili, 2 (Lasa jatetxea izandakoaren atzekaldean) ☎: 76 59 39 / 76 59 72 FAX: 76 25 72



Datorren zapatuan Kris-kibalda eta Zotz izango ditugu aurrez aurre goizeko 10etan: bazkaria dago jokuan. Salenko y konpañia eta Zuloak-en artekoa ere ikusgarria izan daiteke; Iturripen jokatu dute horiek. Domekan, Petroleros eta Treyenex, goi mailako bi talde elkarren kontra izango ditugu. Fosforos eta Arrasate Kirolak-en arteko neurketa ere nahikoa lehiatsua izan daiteke.

BELARRIRA

◆ **Zigorra.** No Coment taldeko Eneko Bellidok, bi partiduko zigorra bete beharko du, epailearekin arazoak izan zituelako. Zigorra bete eta gero, txapelketan jarraitu ahal izango du.

◆ **Goleada.** Los Heredia taldea izan da trebeena asteburu honetan, golei begiratu ezker. Zapatuan eguerdiko 12etan Resakas taldearen kontra neurtu zituen indarrak eta Los Herediakoek 16 gol sartu zituzten; aurkariak 2 besterik ez. Trikitik jardunaldi honetan 11 gol sartu dizkio Arrasate Zoo taldeari eta Pub Peoplek 10 sartu ditu. Talde hauek dira, beraz, 8. jardunaldiko talde goleatzailenak.

◆ **Golak.** Jardunaldi honetan 281 gol sartu dira guztira. A taldean 56 sartu dituzte; B taldean 78; C taldean 60 gol eta azken taldean 87 gol sartu dituzte multzo honetako taldeek. D taldekoak izan dira 8. jardunaldiko multzo goleatzailena.

EMAITZAK

A taldea

- Strauss 1 - Aterpe 4
- Bayer Leintz 4 - Iluna Taberna 4
- Kriskibalda 2 - Cervec. Leintz 3
- Astoen Villa 1 Zotz 3
- Bukanak 1 - Hirei 2
- Salenko y Konpañia 4 Fraguél Gol 3
- Fosforos 1 - Zuloak 1
- Los Dalton 3 - Arrasate Kirolak 3
- Ganbelas 9 - Eztanda egin arte 2
- Insert Coin 2 - Adelaida Haizea 3

B Taldea

- Monterrey Tab 2 - Berango Sukal. 2
- Los Dimy 5 - Ezkiñako Hontzak 1
- Petroleros 6 - Uglys Txinato 4
- Pepelus 5 - Txeyenex 3
- Orkatz 1 - Sum. Ugarte 4
- Anbotoste 3 - Totem 3
- No Comment 1 - Pub People 10
- Arrasate Zoo 1 - Trikiti 11
- Tovarixtx 2 - Nuevo Taberna 7
- Danok Lagun 5 - La Banda 2

C Taldea

- Autos Muru 4 - Ke Oxtias 1
- Perrahotsa 3 - Potrosorri 0
- D.K.B 5 - Equis 4
- Nabarros 4 - Irati 9
- Lorategi Potroak 2 - Orlando Piratas 2
- Bodisca 3 - baneuko 1
- Leya 4 - Foto Imagen 6
- Artzankos Udalaitz 1 - Koka Juniors 1
- Exc. Lete 2 - Frantziskaner 4
- Txoko Taberna 2 - Jotakabau 2

D Taldea

- MSM Ingenieria 4 - Tronkoteak 0
- Borrock 'n Roll 8 - Altza Porru 2
- D. A Iriztu 3 - Motz 2
- Sokoakoak 9 - Kakajauri 1
- Elisabeth 1 - Mikelos 9
- Los Heredia 16 - Resakas 2
- BZ Sistemas 5 - Sukar 2
- Teodolito 3 - Argi Ibili 6
- Ojo avisore 3 - Lautherbrunner 4
- Anorthosis Agudah 2 - A.C Surcos 5

VE ECUADOR

Bidaiak

Bidaia zoragarri bat irabazi nahi baduzu, har ezazu parte ATBketan lehiaketan Ez galdu aukera!

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06



Kalitate gorena leihuetan

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

ASTEURU HONETAN

Larunbata 3

Zaldibar

- 8.50 Anbotoste - Pub People
- 10.00 Kriskibalda - Zotz
- 11.00 Artzankos - Frantziskaner
- 12.00 Orkatz - Totem
- 13.00 Ganbelas - Adelaida
- 14.00 MSM Ingenieria - Altxa Porru
- 15.00 Anorthosis Agudah - Tronkoteak
- 16.00 Tovarixt - La banda
- 17.00 Teodolito - Lautherbrunner
- 18.00 Sokoakoak - Mikelos
- 19.00 Astoen Villa - Hirei

Iturripe A

- 10.00 Salenco y Konpañia - Zuloak
- 11.00 Borrock n Roll - Motz
- 12.00 Monterrey Taberna - Ezkiñako Hontzak
- 13.00 Lorategi Potroak - Baneuko
- 14.00 Arrasate Zoo - Nuevo Taberna
- 15.00 DKB - Irati STS
- 16.00 Elisabeth - Resakas
- 17.00 Nabarros - Orlando Piratas
- 18.00 Strauss - Iluna Taberna
- 19.00 Bodisca - Foto Imagen

Iturripe B

- 14.00 Bayer Leintz - cervec. Leintz
- 15.00 No Comment - Trikiti
- 16.00 Los Dalton - Eztanda egin arte
- 17.00 Leya - Koka Juniors
- 18.00 Los Heredia - Sukar
- 19.00 Insert Coin - Aterpe

Igandea 4

Zaldibar

- 8.50 Bukanak - Fraguél Gol
- 10.00 BZ Sistemas - Argi Ibili
- 11.00 Autos Muru - Potrosorri
- 12.00 Petroleros - Txeyenex
- 13.00 Los Dimy - Ugly Txinat

Iturripe A

- 10.00 Txoko Taberna - Ke Oxtias!
- 11.00 Diego Antonio Iriztu - Kakajauri
- 12.00 Fosforos - Arrasate Kirolak
- 13.00 Excav. Lete - Jotakabau

Iturripe B

- 10.00 Pepelus - Suminis Ugarte
- 11.00 Ojo Avisore - AC Surcos
- 12.00 Perrahotsa - Equis
- 13.00 Danok lagun - Berango Sukaldeak

Goiko postuetan kontuak bero-bero

Bigarren faserako 8 talde besterik ez dela sailkatu behar jakinda eta multzo desberdinetako sailkapenei gainbegirada emanez, garbi ikusten da lehia bizia 6., 7. eta 8. postuetan dagoela. Hasierako tokietan dauden taldeak, dagoeneko, sailkatuta duedela esanenez. Trikitik eta Irati S.T.S.k, esaterako, ez dute partidurik galdu eta 16 punturekin ditugu B eta C taldeetako sailkapenaren buru. 8 jardunaldian No Coment taldeak Pub Peoplen kontra galdu egin du 1 eta 10. Haundien kontra haunditzen den taldeak, talde makalagoekin ezin izaten du gauza onik atera. D.K.Bk denboraldiko lehen neurketa irabazi du. D.K.B. eta Equis izan genituen

aurrez aurre eta emaitza 5 eta 4 izan zen D.K.B. taldearen alde. Bestalde, Resakasek txapelketa bukatuko duen ala ez inkognita da oraindik. Aurreko urteetan ez du bukatu, partiduak jokatzerantz ez direlako. Aurten airean dago euren etorkizuna Zaldibarren. Suministros Ugartek 94-95 denboraldirako 8. "proiektu Gil" atera duela esan digute. Talde sendoa osatzen dute urtero, bigarren fasera ere sailkatzen dira, baina hortik aurrera ezin. Ea bada, 8. proiektukoak azkenerarte iristeko gauza diren.

Bukatzeke, Zuloakekoei eta Argi Ibilikoei ez haserratzeko eskatuko genieke...



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

ANTZERKIA

P
e
k
a
t
a

M
i
n
u
t
a

Karrakaren ekoizpena

Amaia antzokian

Abenduak 9, ostirala

Gaueko 10,30etan

Sarrera: 700 pta.

Gazte txartelarekin 500 pta.



Arrasateko
Udaletxea



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko OSASUN GIDA

ALBAITARIAK

ALTAMIRA KLINIKA J.L.Iñarra, 24-Behea ☎797489
 ZARUGALDE KLINIKA Zarugalde, 25 behea (24ordutan) ☎791531

DENTISTAK

ADUR MEDIKU INSTITUTU ODONTOLOGIKOA Iturriotz 35 ☎799560
 ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz 17,1 Ezk..... ☎797223
 ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea..... ☎797190
 DENTAL-ZURI (Lagun-Aro,Osakidetzako haur programa) Arrasate Pasealekua, 33..... ☎770136
 GIPUZKOA ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETAKO ZENTRUA Iturriotz 7 Bis..... ☎797388
 IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz 7, 1º..... ☎796945
 LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3 1.-B ☎771263

DIETETIKA ETA NUTRIZIOA

MARIBI SERRANO Kalealdea, 11- behea ☎796578
 LOREA ARANBURU Drea. BETI-ONA GIMNASIOA Uribarri Etorbidea, 12..... ☎770067

FISIOTERAPEUTAK

ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis ☎770396

GINEKOLOGOAK

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA Zerkaosteta,17-Behea ☎792018

LOGOPEDIA

ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Zurgin Kantoi 3-Esk ☎797946
 PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10 ☎794877

MASAIARIAK

IOSU ARANZABAL Dr. Bañez 10, 1º..... ☎791818
 J.CRUZ ZABALOA AZKOAGA (Kiromasaia) Jose M. Eguren 4-Behea ☎795638

MEDIKU-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎794422

OPTIKA

ARRASATE OPTIKA (Optika,Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño,6 ☎792598
 GARAGORRI OPTIKA (Optika eta optometria) Iturriotz 29..... ☎791698

PODOLOGOAK

BARRUTIABENGOA URANGA Pablo Uranga, 6 ☎795075

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ MONREAL Olarte, 10 ☎798816
 PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10 ☎794877

REUMATOLOGIA -BIZKARREZURTERAPIA

GOROSARRI-TROJAOLA Dreak. Zaldibar 1, 1..... ☎770040

OSASUN GIDARAKO IZENEMATEA: 77 08 15



1.969an, San Andres Herri Eskolaren hasierak.

an Andres Herri Eskolak 25 urte betetzen dituen honetan, zer hoberik inaugurazio ekitaldiko irudi bat ekartzea baino? 1969ko urtarrila zen, ikasturtea hasita egon arren agintariek ikastetxeari bisita ofiziala egin zioten eguna.

Gazteluondo, Biteri, Bedoña, Garagartza, Udala eta Gesalibarko eskoletatik ume guztiak San Andres eskolako honetarako ekarri zituzten ireki zen urte hartan, "Centro Comarcal" izenaz. Garraioa eta jangela ere jarri ziren, hasiera haietako 500

umeentzat.

Eskolaurreko ume talde honek bisitariei adina arreta jarri zion argazkilaria.

Erretratuan zutik agertzen direnak, ezkerretik hasita, **Nati Zugasti**, garai hartako irakasleetatik San Andresen geratzen den bakarra, **Ber-**

nardo Hernandez, orduko zuzendaria, **Julio Gorroño-goitia**, Diputazioko ordezkaria, atzean **Juan Manuel Azkoaga**, alkatea, hurrengo ezezaguna, **Julio Iranzo**, Gipuzkoako Gobernadorrea eta **Jose Antonio** ize-neko inspektorea.

ARKO_k bi lanpostu bete behar ditu

1. -ATBko arduraduna

Baldintzak:

- Kazetaritza eta ikus-entzuteko komunikabideen ezagupena
- Euskara idatziz eta ahoz ondo menperatzea
- Gidatzeko karneta eta autoa

Lanpostuaren betebeharrak:

- Talde teknikoaren koordinaketa
- Programazioaren ardura
- Kazetari lana

Izena eman eta curriculum-ak aurkezteko epea abenduaren 13an bukatuko da.

Informazio gehiago: 77 08 15 edo 77 06 90.

2. -ATBrako ikus-entzunezko teknikaria

Baldintzak:

- Ikus-entzunezkoen ezagupena
- Euskara ondo menperatzea
- Gidatzeko karneta eta autoa

Lanpostuaren betebeharrak:

- Asteburu eta jaiegunetan ATBko teknikari lana.

HIESa:

Esperantzarik bai?



Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak kaleratutako azken txostenaren arabera, 1984. urtean diagnostikatu zen Euskal Herrian HIESaren lehen kasua: Geroztik, beste 2.065 kasu deklaratu dira.

Gaixotasun honi "XX. mendeko izurritea" deitu zaio: datu ofizialen arabera, infektatutako 2065 pertsona horietatik, 1012 hil egin dira eta sendabidea edo bakuna oso urruti dago oraindik.

Maider Egües

Iñaki

"Urtebete pasa nuen etxean, irten barik"

Iñakik ez du bere aurpegia erakusterik nahi izan. Laster herri guztiak bere gaixotasunaren berri jakingo duela onartzen duen arren, argazkietan ez ateratzea erabaki du, beraz, bere hitzak jaso ditugu ondorengo lerrootan. 29 urte ditu eta 25ekin jakin zuen seropositiboa zela. Duela 2 urte t'erdi paralisia izan zuen eta muleta batekin ibiltzen da geroztik.

"14 urterekin hasi nintzen heroinarekin eta 18rekin heroinomano bihurtu nintzen. Nire ustez, aurrez infektatuta zegoen xeringila bat erabiltzeagatik harrapatu nuen birusa; orduan, gaixotasuna diagnostikatu zidatenean, heroina hartzeari utzi egin nion, duela 4 bat urte. Niretzako kaosa izan zen, mundua erori zitzaidan gainera. Gasteizen analisi batzuk egin zizkidaten eta horien berri Arrasateko anbulategian jaso nuen. HIESaren antigorputzak nituela jakin nuenean, etxera sartu, telebista aurrean eseri eta horrela pasa nuen urtebete: egun osoa pijamarekin tele-

bista ikusten. Azkenean, horrela ezin nuela jarraitu eta zerbait egin behar nuela konturatu nintzen."

— Nola iratzartu zinen urtebeteko ameskaizto horretatik?

— Ba, egun osoa telebista ikusten pasatuz ez nuela ezer lortzen konturatu nintzen: irabazten baino, egoera hartatik galtzen irtetzen nintzela ikusi nuen. Beraz, nire lagunekin nuen harremana eta nire bizitza berreraikitzen saiatu nintzen, urte luze hartan dena galdu nuen eta. Lagunekin harremana lortze oso zaila izan zen, nire lagun guztiak "yonkiak" zirelako eta asko hil egin zirelako, beraz, lagun berriak egin behar izan nituen. Oso zaila izan zen, ordurarte joaten ez nintzen lekuetara joanez lortu nituen lagun berriak. Dena dela, oso laguntza berezia izan nuen lan horretarako, nire neska-lagunarena.

— Oraindik elkarrekin jarraitzen duzue?

— Ez, utzi egin ninduen eta nik ulertu nion: ezin zuen nire bizitzaren zama beregain hartu eta bion artean

amodio handia zegoen arren, utzi egin genuen.

— Lagun berriei esaten diezu seropositiboa zarela?

— Beno, gauza bat ezberdindu behar da: egunero nirekin egoten den koadrilak badaki, baina noizean behin ikusten ditudan lagunei ez diet ezer esaten, ez die axola.

Iñakik itxura ona du, kolore ona. Argala da, baina ez dirudi gaixotasunaren eraginez sortutako argaleria denik. Lehen askoz itxura hobea zuela esaten du eta paralisia izan zuenetik, kirola egiteko ohitura galdu egin duela.

— Nire forma fisikoa galdu nuen. Lau urte t'erdi daramatzat infektatuta eta denbora horren erdia ospitaletan pasa dut. Orain hobeto nabil, baina eguna oso luzea egiten zait. Ezinezkoa zait lana aurkitzea, ez dakit zergatik... minusbalia tailerretan bakarrik lortzen dut lana eta noizbehinka bakarrik izaten da hori.

— Botikarik hartzen duzu?

— "Retro-vir" pilula

famatuak hartzen ditut bakarrik. Seropositibo gehienek hartzen dute, gaixotasuna "gelditzeko" balio du.

— HIESa izanda, zaila da zoriontsu izatea?

— Bai, ni ez naiz zoriontsu, mila gauza falta zaizkit eta: lana, dirua, emakume bat... eta geroago, seme-alabak: badakit ez ditudala sekula izango.

— Eta bukaera heltzen denean?

— Beno, heriotzari beldurra galtzen jakin behar da eta hori ikasi egiten da, ez daukazu beste erremediorik. Hasieran beldurtu egiten zara, bihar bertan hilko zarela uste duzu, baina pixka bat informatzean, jokaera aldatu egiten da.

— Hil-hurrean egon baino lehen bere burua hilko duela esan zuen gaixo batek. Eutanasiaren aldekoa zara?

— Bai, jakina, eta nik ere argi daukat nire burua hilko dudana. Ez dut sufritzen eta poliki hiltzerik nahi. Bide erraz asko ezagutzen ditut horretarako eta ez nago prest ospitalean minez hiltzeko.

Egoera, mundu osoan da kezkarria. Estatuko datuen arabera, Madril, Balentzia eta Bartzelonaren ondoren, Bizkaia da HIES kasuen portzentai altuena duen probintzia: populazio osoaren %4.77a dago infektatuta. Gipuzkoan, populazio osoaren %2.87a.

Mexikon egin zen HIESaren azken konferentzian ateratako konklusio batek esaten zuenez, infektatu behar den populazioaren erdia oraindik jaio ere ez da egin. Infektatutako jendeak ez du sendabide azkar baten esperantzarik eta asumituta daukate hil egingo direna.

Jose

“Agonia baino, nahiago dut nire burua hiltzea”

Oraindik ere droga-zalea da baina ez du heroina hartzen, Txagorritxun egunero ematen dioten metadona dosia baizik. Duela 6 urte jakin zuen seropositiboa zela eta oraindik ez da hasi HIESa garatzen. 30 urte ditu eta ezkondata egon zen. Alaba bat du eta nahiago izan du bere abizena eta argazkia aldizkarian ez agertzea. Beragatik ez dela dio: bere alabagatik eta bere familiarengatik erabaki du argazkirik ez ateratzea, jendeak baztertuko dituen beldur da eta.

— Zure familiak nola hartu zuen gaixotasunarena?

— Gogorra izan zen. Ezin dut ondo daudenik esan: Ama askotan aurkitu dut negarrez, eta nik esaten diot, “ama, lasai egon, hau luzera-ko doa eta orain ondo nago”.

— Baztertua sentitu zara sekula?

— Bai horixe, askotan! Ileapaindegira joaten zarenean seropositiboa zarela esan behar diezu eta askotan alde egiteko esaten dizute. Dena dela, nik abixatu egin behar diet, ez dut inor infektatu nahi: Seropositibook gure eskubideak ditugu baina baita gure betebeharrak ere, eta gure gaixotasunaren berri ematea, betebeharratariko bat

da. Bestela ere, jendeak seropositiboak onartzen dituela esaten du, baina hitzak besterik ez dira horiek: euren eskuetan balego, aparteko mundu batean eukiko gintuzkete, Francoren garaian atzeratuekin egiten zuten bezala.

— Seropositiboa zinela jakin zenuenetik orainarte, asko aldatu da zure bizitza?

— Bai. Lehen lanpostu bat neukan baina orain inork ez dit lanik eman nahi. Ez dute onartzen seropositiboa naizelako lanik ematen ez didatenik, baina nik badakit horregatik dela.

— Gobernutik jasotzen duzu diru-laguntzarik?

— Niri ez didate ezer ere ematen, pezeta bat bera ere ez. Eskerrak etxean bizi naizena eta nire familiak onartu egin nauena, baina duela 3 urtetik ez dut xoxik ere ikusten.

— Alaba bat duzula esan duzu...

— Bai, ezkondata egon nintzen baina separatu egin ginen. Arrazoi nagusienetarikoa birusarena izan zen. Zorionez, nire alaba eta nire emazte-ohia ez daude infektatuta.

— Seropositiboa izanda, zaila da “ligatzea”?

— Uf! Zaila ez, Arrasaten ezinezkoa da! Esaten dizut; baztertu egiten gaituz-

SENTSIBILIZATUTA GAUDE?

Asko hitzegiten da sentsibilizazioaz, eta antza denez, jende guztiak errespetatzen ditu seropositiboak. Azken hauen esanetan ordea, hori ez da egia. Lanpostu bat bilatzea ezinezkoa zaie eta gainera, gobernuak ez die inolako dirulaguntzarik ematen. Gaietik kendu ezin dezaketen pisua da HIESa eurentzat eta pisu hori jendearen aurrean ez izkutatzeko eta gizartean integratzeko ahaleginetan jokatzen duten egiatasuna, marginazio bihurtzen da askotan. Seropositiboak kexu dira: Zergatik horrenbeste beldur? Zergatik horrenbeste marginazio?

te, beldur handia dago. Arrasaten neska batekin harremanak eukitzeko, oso neska liberala izan behar du. Hirietan errezagoa da.

— Botikarik hartzen duzu?

— Ez, paso egiten dut. Guztiz efektiboa den botikarik ez dagoenez, tratamenduetan ez nintzela hasiko esan nion medikuari; ez du ezertarako balio. Nirekin ez dute esperimentatuko. Argi daukat nire erruz hartu dudala HIESa, eta sendabiderik ez dagoenez, ez dute nirekin esperimentatuko.

— Lagun asko ikusi duzu hiltzen?

— Pila bat! Zuk badakizu hemen, herrian, zenbat “yonki” ginen?

— Lagun bat hiltzen ikusten duzunean, zer sentitzen da?

— “Caballo”arekin zaudenean, ez da ezer sentitzen, norbere gauzez kezkatzen gara bakarrik. Baina gero, heroina utzi eta metadonarekin hastean, pentsatzen hasi eta orduan tristura handia sartzen da... eskerrak ni oso positiboa naizena! Positiboa ez bazara, gaixotasunak desfruitu egiten zaitu.

— Positiboa izateak laguntzen du?

— Bai. Dena dela, batzutan ebitaiezina izaten da depresio bat izatea, imagina-

tu, 30 urte ditut eta hil egin behar dut... gogorra da, ezta?

— Heriotzaren beldur zara?

— Hiltzeak ez nau beldurtzen, minez hiltzeak baizik. Nire lagun askok horrela pasa dituzte euren azken 6 hilabeteak: ospitaleko ohe batean hiltzen, eta hiltzen lagunduko dien inor barik. Momentu horietan, gaixoak nahi duen gauza bakarra hiltzea da, baina estatuan eutanasia debekatuta dagoenez, ba, ezin da ezer egin.

— Beraz, eutanasiaren aldekoa zara?

— Jakina, guztiz aldekoa naiz. Nik argi daukat momentua helden denean, nire buruaz beste egingo dut eta nire ingurukoek badakite hori eta ados daude.


— Infektatu aurretik, bazenuen HIESaren berri?

— Ezer gutxi genekien. Zer uste duzu: HIESa hartzeko arriskua zegoela jakin banu, lurretik xeringilak hartuko nituela? Ezta pentsatu ere. Eta oraindik ere, nire ustez, gazteek ez dute nahikoa informazio: “Yonki berriek” xeringak konpartitzen dituzte oraindik.

— Noiz helduko da sendabidea?

— Nork daki! Asko falta da, ziur. Oraindik kontaminatu behar den biztanlego erdia ere ez da hil.

Ion Salaberri: “Heroinomanoa izatea HIESA eukitzea baino txarragoa da”



Bere kalkuloen arabera, 1983aren bukaera eta 1984aren hasiera aldera hartu zuen HIESaren birusa. Heroinomanoa zen eta infektatuta zegoen beste pertsona baten xeringila erabiltzeagatik gertatu zitzaiola uste du. 1990era arte ez zuen gaixotasuna garatu eta orduan, bere aurpegia E.H. osoan egin zen ezaguna.

— Nola jakin zenuen seropositiboa zinela?

— Analisi batzuen bitartez, baina hasieran ez nion garrantzirik eman, ez nekien oso ondo zer zen hori eta “paso” egiten nuen gorputzean herpes handi bat atera zitzaidan arte. Medikuek Txagorritxura joateko esan zidan baina nik nahiago nuen Bilbora joatea, han “caballo”a zegoen eta. 1990ean sukarrarekin hasi nintzen, oso sukar altuaz eta koskor bat ere atera zitzaidan: Tuberkulosia nuen. Hilabete pasa nuen 40ko sukarrarekin eta medikuek mila froga egin zidaten Tuberkulosia nuela konturatu ziren arte. Orduan HIESa nuela esan zidaten, hau da, ordurarte antigorputzak bakarrik nituen baina orduan gaixotasuna garatzen hasi nintzen, beraz, HIESaren gaixotasunarekin 1990eko urtarilean estreinatu nintzela esan daiteke. Gero pisua errekupe-ratu nuen garai bat pasa nuen, oso ona, ospitalik gabe, medikurik gabe... primeran, 1992ko Aste Santurarte. Ospitalean ingresatu ninduten neumonia batekin baina 5 egun besterik ez nituen han



HIESaren sinbolo bihurtu da Ion Euskal Herrian.

egin. Ondoren “cansasi” izeneko mikro-bakteria baten eraginez, beste tuberkulosi bat izan nuen. Acapulcon harrapatu nuen hura eta oso gaizki egon nintzen: 43ko sukarra ere izan nuen. Ordu-rako kilo asko galduta nituen eta hurrengo gainbehera, joan den urtarrilean izan zen. Medikuek ez zekiten zer neukan baina azkenean, “M.A.I” izeneko beste mikro-bakteria bat nuela esan zidaten. Baina izan dudana gainbehera gogorrena joan den apirilekoa izan zen: “Tosoplasmosis” baten ondorioz, zerebeloa minduta geratu zait: “Tosoplasmosis” horri esker, erruberadun sila “zoragarri” horretan ibili be-

har izaten dut orain eta gainera, hitzegiteko zailtasunak dauzkat. Eta hori da nire historia: momentuz hemen nago.

— Fisikoki, nola sentitzen zara?

— Beno, ondo, baina ezin naiz ibili eta entzuten duzu nola hitzegiten dudana...!

— Zaintzen duzu dieta?

— Ez gehiegi, normal jaten dut. Dena dela, hagin asko galdu dudanez, pureak eta janari bigunak jan behar izaten ditut. Haragia jatea ezinezkoa zait baina arrai-narekin ondo moldatzen naiz, eta esne asko edaten dut, gibelerako ona delako.

— Seropositiboa zinela esan zizutenean, nola erre-aktionatu zenuen?

— Ez nuen erreakziorik izan. Ez nuen HIESa gehiegi ezagutzen, oso gaizki informatuta nengoen. “Marikoiek” izaten zuten gaixotasun bat bazela entzunda neukan, Rod Hudson-ek zuen gaixotasuna. Drogara engantxatuta nengonez, ez nuen ezer berezirik sentitu: nire ustez, heroinomanoa izatea HIESa izatea baino txarragoa da.

— Askok aldatu da zure bizitza?

— Seropositiboa naizetik ez, HIESa dudantetik bai, 1990etik beraz. Zergatik aldatu den nire bizitza? Heriotza hurbil dagoela ikustean, bizitza zein polita den konturatu naiz; agian tontakeria irudituko zaizu baina egia da: Bizi egin nahi dut, ez dut hiltzerik nahi.

M

arikoiek’ izaten zuten gaixotasun bat bazela entzunda neukan, Rod Hudson-ek zuen gaixotasuna”

B

**izi egin nahi dut,
ez dut hiltzerik
nahi, eta
heriotzak
beldurra ematen
dit. Bizitza zein
polita den
konturatu naiz”**



Jadanik defentsa bat bera ere ez du lonek. Hala ere, bizi izaten jarraitu nahi duela dio.

— Heriotzari beldur diozu?

— Bai, beldur handia ematen dit. Infektatuen heriotz prozesua, hau da, bukaerako fasea edo “fase terminala”, oso motela izaten da, baina erizainek esan didatenez, azken momentuan, ondo erreakzionatzen dute gaixoek, histerismorik gabe, “hiltzera zoaz eta punto”, eta ulertu egiten dute.

— Zurea oso luze doa hala ere.

— Joan den apirilean tosoplasmosia izan nuenean inork ez zuen nigatik xoxik ere ematen, mediku guztiek hiltzera nindoala esan zuten eta senide eta lagunak ere ziur zeuden horretaz: baina ikusten duzu, hemen nago eta bizi izateko gogo handiaz gainera.

— Nondik ateratzen duzu bizirik jarraitzeko indarra?

— Ba, ez dakit, nahi duzuna imajinatu. Urte t’erdi da defentsa bat bera ere ez dudala; T-4 bat bera ere ez dut. Ez dakit, medikuak zera

esan zidan, “barruan daukazu zerbaitek mantentzen zaitu bizirik”, eta nik galdetu nion, “Zertaz hitzegiten ari zara; nire jokaeraz?” Medikuak ez zidan azalpen gehiagorik eman nahi izan, eta horrela geratu zen gauza. 5 urte daramatzat HIESarekin, beraz, ezin naiz kexatu, horrenbeste urte irauten duen jende gutxi dago.

— Sekula sentitu zara bazterturik?

— Ni? Sekula ere ez. Etxean oso ondo portatu dira nirekin eta kalean ere. Jendeak oso ondo tratatu nau. Dena dela, baztertuta sentitzen den seropositibo asko dago oraindik.

— Etxekoek nola hartu zuten zure gaixotasuna?

— Oso ondo. Nire arrea Idoia oso ondo portatzen da nirekin; behin baino gehiagotan esan dut monumentu bat egin behar zaiola: edozeinek ez dio bere bizitzari uko egiten beste batena zaintzeko, eta horrek arazo bat dakar: hiltzen naizenean, hutsune handia sentituko du bere bi-

zitan: hortik ateratzen jakin-go duela espero dut.

— Zer egiten duzu egunean zehar?

— 10ak aldera jeikitzen naiz, gosalduta egiten dut eta etzan egiten naiz berriz, ia egun osoa pasatzen dut etzanda. Gaur ariketa fisiko batzuk egiten hasi naiz eta eguraldi ona egiten duenean, kalera ateratzen naiz Idoiarekin, zerbaite edaten dugu eta etxera berriz. Egunkariak etabar ere irakurtzen ditut: oso bizitza lasaia daukat. 11ak aldera oheratu egiten naiz, neka-neka eginda bukatzen dut eguna eta.

(“Waku” etorri da, bere txakurra)

— Kaixo Waku, begira, hau grabadora bat da... Waku oso formala da, zaunka asko egiten du baina oso ona da...

— E.H osoan egin da ezaguna zure aurpegia. Makina bat karteletan ikusi zaitugu pertsonaia ezagunekin, baina HIESa duten askok euren aurpegia izkutatu egin du...

— Izkutatu? Zertarako? Beno, imajinatu lanean nago-

ela eta HIESa dudala jakin ezkeror, bota egingo nautela: orduan bai, nire gaixotasuna izkutatuko nuke. Bestalde, pentsatu neska batekin nabilela; kasu horretan nire bikoteari esango nioke, nahiz eta hori egingo ez lukeen gaixo asko egon. Nik sekula ez dut nire gaixotasuna izkutatu.

— Seropositiboa dela jakin berri duen pertsona bati zer esango zenioke?

— Ez larritzeko. Lasaitasuna da terapiarik onena. Bizi izaten jarrai dezala, gaixotasuna garatzen noiz hasiko den inork ez daki eta. 12 urte pasa ditzake beste edozeinek bezala, gero, gaixotasuna garatzen hasten denean, beste 7 urte bizi daiteke, beraz, guztira, 20 bat urte bizi daiteke HIESarekin.

— Zoriontsua zara?

— Mmm... bai.

— Eta sinestuna?

— Ez, beno, agian heriotzaren ondoren zerbaite egon daiteke baina dagoena dagoela, ez dit axola. Eta beno, Jainkorik badago, ezagutuko dut!

Txus Brizuela "Etxean jokatzeko dugunean Iturripe txiki geratzea gustatuko litzaidake"

Urte dexente darama Txus Brizuelak gure artean, 2. mailako saskibaloia taldea entrenatzera etorri zen Gasteiztik eta une honetan Urbina-Maltzaga, EBA ligan jokatzeko duen taldearen entrenatzailea da. ACB urrezko maila den neurrian, EBA liga Esatutako saskibaloiko zilarrezko maila dela esan dezakegu. Beraz, goiaren goian daukagu Arrasateko saskibaloia taldea.

- Dagoeneko, 9 neurketa jokatu dituzue, nola baloratzen duzu Eba ligan egindako lana?

- Maila hori berria da guretzat eta esperientzia eza ordaintzen ari gara. Irabazi zein galdu ditugun neurketen analisi bat egin behar genuke. Baina, era berean, galdu ditugun neurketak zelan galdu ditugun aztertu beharko genuke. Izan ere, ez da gauza bera partidu osoan galtzen joan edo irabazteko aukera izan eta azken unean galtzea. Azken unean erreakzionatzen jakin ez dugulako etorri dira gure porrot asko. Horren zergatia jende betetan ez dugulako izan daiteke. Bide batez, gustatuko litzaidake azaltzea Eba ligan dabilen talde guztietan lehen mailan esperientzia duten jokalariek daudela eta guk ez dugula horrelakorik. Egia da Alvaro Coca Caja Bilbaon ibilitako dena, baina bertan esperien-



Txus Brizuelak Urbina Maltzaga taldeko entrenatzailea

tzia txarra izan zuen, beraz, ezin genezake esan Coca lehen mailan pisua izan duen jokalaria denik.

- EBA liga uste zenuena da edo maila hobea dago?

- Uste genuena da. Talde berri asko daudenez, enkarmentu handiagoa duten taldeak nagusitzen ari dira. Dena dela, konfidantza osoa daukat nire taldearengan eta gogor eta gogoz lanean gabiltzanez, gure ahaleginaren fruitua laster etorriko dela uste dut, talde lehiakorra

osatzeko gai garelako garbi daukat eta.

- Denboraldi hasieran fitxaketa berriak egin zenituzten; pozik zaudete euren lanaz?

- Bai, pozik nago baina denek gehiago eman dezaketela uste dut, bai fitxaketa berriek eta baita etxeko jokalariek ere. Berriek beste arazo bat dute, nire estilora, nire sistemara egokitu behar dute; entrenatzaile bakoitzak bere joku sistema izaten du eta jokalariek denbora behar iza-

ten dute hori asimilatzen.

- Urbina Maltzagak duen aurrekontuaz, posible da Eba ligan jarraitzea?

- Bestela ez ginen hemen egongo. Aurrekontuaren gainean hitz egiterakoan, banaketa bat egin behar da: talde bakoitzak bere aurrekontutik zenbat bideratzen duen jokalarientzat kontutan hartu beharreko datua da. Hori aintzat hartuta, taldeen artean izugarriko desberdintasunaz daudela ikus daiteke. Ez da ahaztu behar gure taldean ez dagoela jokalaririk profesionalik, amerikarra ezik; amerikarrak talde denetan dira profesionalak. Gainontzekoak gurekin jokatzeko ari badira ere, hemen ikasten dutelako da, beraz, Arrasatera etorri dira, ez saskibaloitik bizi izatera, ikastera baizik. Hala ere, profesionalik ez eduki arren, nire jokalarien maila ona da eta gogor lan egin ezker, emaitza baikorrak izango ditugu. Era berean, argi daukat %100era jokatzeko gai ez bagara, ezin izango dugula emaitza onik atera.

- Nola ikusten duzu Arrasateko afizioa?

- Ondo ikusten dut, baina, arrasatearrek oraindik saskibaloia non dagoen ez dakitela uste dut. Saskibaloiak gailurra lortu du. Eba ligan jautzia ACB izango litzateke eta hor jokatzeko 500 milioi utzi behar dira; hori jakina, ezinezkoa da Arrasaterako.



MENDIRAKO EKIPAMENDU TEKNIKO

Denda berria ireki dugu.

Ez itsu-itsuan erosi.

Eska ezazu aholkua, Jon Lazkanok emango dizu eta.

HARRURIAGA, 8

BERGARA

☎ - FAX: 76 08 84

PENALTAK

• Lehen mailako esku-baloi taldeak Trapagaranen kontra neurtu beharko ditu indarrak Iturripen igandean. Trapagaran 9 punturekin 4. tokian dago eta Arrasate 5.ean 4 punturekin. Jokatutako neurketetatik 2 irabazi egin ditu eta 4 galdu. Igandeko partidua ez da samurra izango, baina etxean jokatu behar denez, jarraitzaileen animoak alde izango dituzte Imanol Alvarezen mutilek.

• Urbina-Maltzagak VINO de Toro taldea izango du aurrean zapatuan 6.30etatik aurrera. Sailkapeneko liderraren kontra neurtuko ditu indarrak Urbina-Maltzagak. Une honetan Arrasateko taldeak 11 puntu ditu eta sailkapeneko 13. tokian dago.

Mondra eta Mungia aurrez aurre Atxabalpen

3. mailako Mondra taldeak denboraldiko 14. jardunaldia jokatuko du Atxabalpen igandean. Mondrak eta Mungiak jokatuko dute elkarren kontra arratsaldeko 3.30etatik aurrera. Mondrarentzat samurra dirudi neurketak, teoria behintzat. Izan ere, Mungia sailkapeneko azken tokian dugu sailkatua 6 puntu eta 8 negatiborekin. Mondra, oster, 9. tokian dago 14 puntu eta 2 positiborekin. Denboraldi honetan, Tolosa, Aloñamendi, Santurtzi, Basconia eta Zamudioren kontra jokatutako norgehiagokak irabazi egin ditu Mondrak. Berdinketa, Balmaseda, Ondarru, Zalla eta Amorebietarekin lortu du eta porrotak Arenas, Hernani, Getxo eta Durangoren kontra jokatutako partiduetan etorri dira. Igandeko partidua joko-



Mondrako jokalariek gogor eta gogoz borrokatu beharko dute tu ondoren, Mondrari 5 partidu falta izango zaizkio lehen buelta bukatzeko. Atxabalpen, Aurrera de Vitoria, Urola eta Elgoibarren bisita jasoko du. Etxetik kanpo Alaves, eta Touringen kontra neurtu beharko ditu indarrak. Aurrera de Vitoria eta Elgoibarren kontrako neurketak izango dira zailenak sailkapenari begiratuta, talde hauek ere Mondra bezalaxe, aurrean daudelako. Gainontzekoak irabazteko modukoak izango dira, talde gehienak beheko zuloan sartuta daude eta. Dena dela, askotan uste hauek ustel izaten dira eta zelaiaren gainean gauzak erabat alda daitetzke; esaten den moduan, jokatze orduan ez dago arerio samurrik.

EMAITZAK

Futbola

3. maila: Durango 2 Mondrak 0
Emakumeak: Mondra 6 Bergarak 1
2. erregionala: Elgoibar 8 Mondra 1
Jub. Ohorezko liga: Mondra 1 Ordizia 2
Jubenilak: Aloñamendi 2 Arrasate 2
Lehen kadeteak: Aloñamendi 1 Arrasate 1
2. Kadeteak: Arrasate 1 Bergara 1
Infantilak: Arrasate 1 Aloñamendi 1
Hurrengoak:
3. maila: Mondra - Mungia. Igandea. 3.30etan. Atxabalpen.
Emakumeak: Alde Zaharra - Mondra. Igandea. 12.15etan. Donostian.
Jub. Ohorezko Liga: Lazkao - Mondra. Larunbata. 3.30etan.

Jubenilak: Arrasate - Urki. Larunbata. 3.30etan. Atxabalpen.
Lehen kadeteak: Arrasate - Ordizia. Igandea. 11etan. Atxabalpe.
2. Kadeteak: Soraluze - Arrasate. Larunbata. 11.30etan.
Infantilak: Arrasate - Iñitxa. Igandea. 10etan. Atxabalpe.

Saskibaloi

EBA Liga: Trebol Gijon 84 Urbina Maltzaga 82
Seniorrak S-23: Ostadar 82 - Urbina Maltzaga 73
Juniorkak A: B.K.L 58 - Urbina Maltzaga 56
Juniorkak B: Urbina Maltzaga 119 - Ikastola Urmek 88
Seniorrak Emak: Ondarraitz 23 - Urbina Maltzaga 30
Kadeteak A: Urbina Maltzaga 73 - Aldapeta 63

Kadeteak Emak A: Ondartza 23 - Urbina Maltzaga 21
Kadeteak Emak B: Urbina Maltzaga 28 - Almen B 27
Hurrengoak:
EBA Liga: Urbina Maltzaga - VINO de Toro. Larunbata. 6.30etan Iturripen.
Seniorrak S-23: Urbina Maltzaga - Goierri A. Larunbata. 4etan. Arrasate.
Juniorkak A: Urbina Maltzaga - Loiola. Igandea. 11.30etan. Arrasate.
Juniorkak B: Urbina Maltzaga - Almen. Larunbata. 6etan. Arrasate
Kadeteak A: Iraurgi - Urbina Maltzaga. Larunbata. 11etan. Azeitian.
Kadeteak B: Ikastola Urmek - Urbina Maltzaga: Larunbata 4etan. Urretxu.
Kadeteak Emak A: Urbina

Maltzaga - Ibai Lizeoa. Larunbata. 12etan. Arrasate.
Kadeteak Emak B: Urbina Maltzaga - Almen. Larunbata. 4etan. Arrasate.

Eskubaloia

Lehen maila: Telde 22 Arrasate 15
Hurrengoak:
Lehen maila: Arrasate - Trapaga. Igandea. 12etan. Iturripen.
Lehen territoriala: La Salle - Arrasate. Igandea. 12etan. Legazpi.
Jubenilak: Arrasate - Pasajes. Igandea. 10etan. Iturripen.

Futbito

Lehen maila: Arrasate 9 Antenavision 1
Arabako territoriala: Lehoia 4 Arrasate 8

Hurrengoak:

Lehen maila: Danon Txokoa - Arrasate. Larunbata. 6.30etan. Ibarra.
Arabako territoriala: Cafeteria Gomar - Arrasate. Larunbata. 4.30etan. Gasteiz.

Rugby-a

Lehen maila: Ordizia 20 - Arrasate 14
Jubenilak: Urretxu 0 Arrasate 77
Hurrengoak:
Lehen maila: Zarautz - Arrasate.
Jubenilak: Atletico bera bera - Arrasate. Larunbata. Donostia.

Pilota

Paletan: Arrasate 35 - Altza 28
Hurrengoak:
Paletan: Altza - Arrasate. Larunbata.



Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118

ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA




J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

Asier Olabarrieta

Sukarrak jotako kitarrista

22 urteko kitarrista arrasatear hau E.H Sukarra taldeko fixaje berria da. Alemania, Italia eta Austrian zehar egindako birak izan duen arrakasta ikusita eta "Garaileen laberintoan" diska berria kaleratu ondoren, oso pozik dago. Taldean nola sartu zen azaldu digu Asierrek.



— Inoiz pentsatu zenuen E.H Sukarra moduko talde batean joko zenuenik?

— Ez, ezta gutxiago ere, baina urteak aurrera joan ahala, nire bizitza kitarraren inguruan moldatu nahi nuela ikusi nuen. Bestela ere, nire ikasle urteak ere pasa ditut: elektronika ikasi nuen Eskola Politeknikoan eta gero, Madrilera joan nintzen urtebeterako soinua ikastera. Konturatzen bazara, gainera, egin ditudan ikasketen eta musikaren artean badago antzekotasunik, soinu-teknikaria izateko ikasi nuen eta.

— Nola sartu zinen E.H. Sukarran?

— Duela 3 urte, Markek, taldeko beste kitarrak, Alemaniara joan behar izan zuen eta bitartean, E. H. Sukarrari hainbat kontzertu

eskaini zizkieten. Mark ez zegoenez, ordeko bat bilatzen hasi ziren eta deitu egin zidaten. Bira bat egin nuen eurekin eta hemen inguruan ere hainbat kontzertu eman genuen. Printzipioz, hortan geratu zen dena eta ni Madrilera joan nintzen ikastera. Dena dela, taldea beste kitarra bat hartzeko asmotan zegoen, Nortonek teklaturu jotzen hasi nahi zuen eta bere ordeko kitarra joko zuen pertsona bat behar zutelako; beraz, azkenean, taldean sartu ninduten.

.....
“Diska berria nola atera den ikusita, urduritasun guztiak utzi ditut baztertuta”

— Poz handia hartuko zenuen, ezta?

— Asko pentsatu dut horretaz eta nire dudak ere izan ditut. Hasieran ez nekien taldeak aurrera egingo zuen eta bertan sartzeak

konpromezua eskatzen zuen. Atera berri dugun diskak arrakasta izango zuen ala ez galdetzen nion nire buruari eta orain arte oso urduri egon naiz. Baina tira, azken bira honetan gauzak nola joan diren ikusita eta diska berria nola atera den ikusita, urduritasun guztiak utzi ditut baztertuta.

— Beraz, bira ondo joan da?

— Bai, oso ondo. Italian, Alemanian eta Austrian eman ditugu kontzertuak eta arrakasta handia izan dute guztiak leku guztietan. Gainera, jende guztia oso ondo portatu da gurekin. Oso pozik gaude.

— Zer esan dezakezu diska berriari buruz?

— Kanean dagoela, “Garaileen laberintoan” izena duela, primeran dagoela eta Arrasaten abenduaren 10ean batera joko dugula, diska berria aurkezteko, Etsaiak-ekin.

LABURRAK

“Gazteak eta herri ekimena”

Gizabidea fundazioak antolatutako “Jose Maria Arizmendarretaren IX. Lehiaketa”n saritu diren lanak, hauek izan dira: A mailan, “Aguerri eta Seadem” lelopean, Bergarako Mariaren Lagundia Ikastolako Leire Ruiz de Egin eta Naroa Bengoak 3. saria eskuratu dute 50.000. Bigarren saria, “Zakutoak” lelopean, Lazkaoko San Benito ikastolako Lierni Azkargorta, Larraitz Aranburu eta Maider Telleriak etxeratu dute, 75.000 ptarekin. Lehen saria Eskoriatzako Almen Ikastolara joan da: “Nolakoa gogoia, halako giroa” lelopean Ane Arenaza, Done Larrea eta Olatz Pagaldaik aurkeztutako lana, 150.000 ptarekin izan da saritua.

B mailan, sari bat bakarrik ematea erabaki da, beste bost lanek espero zena baino maila apalagoa izan dute. Beraz, Iruñeko San Fermin Ikastolako Iker Chocarro eta Mikel Amatriainek, “Gazteriaren partehartzea gizartean” lelopean aurkeztutako lanarekin, 250.000 pta eskuratu dituzte.

Batzar orokorra

Atzo egin zuen Arrasate Musikalek urteroko batzar orokorra. Bertan, iazko gestio-plana aztertu eta aurrekontuak onartu ziren. Bestalde, Arrasate Musikalen kokapenerako posible diren lekuek ere hitzegi zen.

ESKIÑA
 TABERNA
 Gaupasa on denontzat
Olarte, 25

CRISTINA GARCIANDIA MUGICA
Dermatologia • Benereologia
Medikuntza • Kirurgia
 ASISTENCIA SEGUROS LAGUN-ARO
 SAN MARTIN OSASUNDEGIA
 Ramon M^o Lili, 2 Gral. eskuma BERGARA ☎: 76 59 39

• ARTEA •
 Eskulanak eta lientzoak
 ENMARKAZIOAK
 Laminak, Izpiluak,
 Margoak
 Ferrerías, 11 Tfnoa: 77 10 95
 ARRASATE

Mundu osoko akordeoia Arrasaten

Gipuzkoako Akordeoi Konfederakuntzak antolatuta, datorren abenduaren 3tik 8ra bitartean Gipuzkoako XV. Akordeoi Lehiaketa, Gipuzkoako VII. Akordeoi Jaialdia eta Nazioarteko II. Akordeoi Lehiaketa egingo dira Arrasaten. 3 lehiaketak egun horietan eta batera izango direla esan daiteke baina bakoitza desberdintzea komeni da.

GIPIZKOAKO XV. AKORDEOI LEHIAKETA

Eliminatoria frogak abenduaren 3an eta 4an SFX ikastolan izango dira; finala, berriz, abenduaren 6an, asteartean, Amaia Antzokia eguerdiko 12etan. Lehiaketa horretan 20 akordeoilarik eman dute izena eta 3 kategoriatan egongo da banatuta: Katgoria infantilean 11 urtera bitarteko gazteek hartuko dute parte; Junior kategorian 12 urtetik 15era bitartekoak eta Senior kategorian, 16 urtetik gorakoak. 4 epaimahakideek erabakiko dituzte irabazleak: Donostiako Kontserbatoriko zuzendariak, Jose Luis Marcok; frantziar kontzertista batek, Christine Rossik; errusiar kontzertista batek, Alexander Dimitriev eta azkenik, Jose Ignacio Ayerbek, Beasaingo Kontserbatorioko partaideak. Katgoria bakoitzerako 3 sari egongo dira: Senior kategoriako lehen saria 175.000 ptakoa izango da; Juniorreko Ingo saria 75.000koa eta Infantilekoa 25.000 ptakoa.



Guztira, 300 akordeoilarik hartuko dute parte 3 lehiaketetan.

GIPIZKOAKO VII. AKORDEOI JAIALDIA

Aurreko lehiaketan parte hartzeko oraindik mailarik ez dutenentzat antolatzen da jaialdi hau, beraz, akordeoilari gazteak promozionatzeko eta ezagutzera emateko.

4 kategoriatan banatuta dago eta 10 urte baino gutxiago dituzten gazteak nahiz 15 urte baino gehiago dutenak parte hartzen dute. 250 lagunek eman dute izena eta 6 adituk osatuko dute epaimahaia. Jaialdia estatu osoko gazteei dago zabaldua baina parte hartzaileen %95a euskalduna dela aipatu behar da. Jaialdi honetan ere izendatuko dira irabazleak.

NAZIOARTEKO II. AKORDEOI LEHIAKETA

Abenduaren 4an eguerdiko 12etan harrera egingo zaie partehartzaile guztiei udale-

txean. 30 akordeoilarik parte hartuko dute eta Italia, Ukraina, Errusia, Eslovenia, Jugoslavia, Alemania, Polonia eta Euskal Herritik etorriko dira besteak beste. Arratsaldeko 8.30etan, joan den urteko irabazleak, Pavel Fenjuk, kontzertua eskainiko du Aretxabaletako parrokiari.

Abenduaren 5ean, astelehenean, lehiaketako lehen fasea hasiko da: froga eliminatorioek goizeko 9etan hasi eta arratsaldeko 8.30ak arte iraungo dute. Asteartean bigarren fasea izango da baina arratsaldez bakarrik. 3. fasea abenduaren 7an izango da eta egun horretan, irabazleak erabakiko dira. Abenduaren 8an, bukaera ekitaldia izango da eta irabazleen berri emango du epaimahaiak. Irabazle bakoitzak 20 minutuko emanaldia eskainiko du eta

ondoren, Arrasateko Kamara Orkestrak eta Iñaki Alberdik, aurreko munduko kopa irabazi duen akordeoilari iruindarrak, kontzertua emango dute.

Lehiaketa honetan lehen postuan geratzen denak, Urrezko Dragoia (sari berria), trofeoa, diploma, datorren urterako hainbat kontzertuetarako gonbidapena eta 500.000 pta etxeratuko ditu; bigarrenak 250.000 pta, trofeoa eta diploma, eta 3.ak, 100.000 pta, trofeoa eta diploma. Sari hauetaz gain, SUDCek, sari berezia emango dio akordeoilari jatorrenari.

Nazioarteko lehiaketako sesioak ikusi nahi izanez gero, sarrerak 300 ptatan salduko dira, baina 5 sesioak ikusteko (20 ordu), abono berezia salduko da, 1.200 ptatan.



- Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
- Otzaratzarak
- Giltzak gordetzeko armairuak
- Erremintak eramateko gurdia
- Lan egiteko aulkiak

Notario Etxagibel (musakola auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

SHOT!
grabaciones

SHOT! grabaciones S.L.
Araba Etorbidea, 3 - 2. solairua
Eskatu Pabilioia
©: 943 - 79 37 51

ARRASATE

Gipuzkoa

• ESAERA ZAHARRA •

“Eskubete txanponek zorionik ez du ematen”.

• JEROGLIFIKOA •



Non darama pistola?

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5		6
7					8	
9		10		11		
12	13					
14			15			16
17			18			
19						

J. B. AGORRIA

Horizontalak Rafa, Txirrindulari Elkarteko Lehendakaria. 7. Dei egin. 8. Lehe-na bi aldiz. 9. (Ald.) Holmioa. 10. Jakitun. 12. Neskatala. 14. Gipuzkoako ibairik luzeena. 15. Eusko Langileen Elkartasuna. 17. Zeregin, behar. 18. (Ald.) Utzi. 19. Anarkiari dagokiona.

Bertikalak Nolanahi, edozelan. 2. Irango hiriburua. 3. Hitz grekoa. 4. Ate txiki estua. 5. Budismoaren fundatzailea. 6. Bi eta bi. 8. (Ald.) Haurrentzako txanoa. 11. Korta, ikuilu. 13. (Ald.) Alkoholdun edari gozoa. 16. (Ald.) Burdina lortzeko tokia. 18. Nor plural-lean.

• HOROSKOPOA •

Aries Zuzeneko bidea aukeratzea ez da erraza izaten baina inoiz ez da etsi behar.

Taurus Ez zara, botoi bat josteko gai. Zer dakizu egiten?

Gemini Egunotan kanpora bazoaz ez ahaztu bueltan etortzeaz.

Cancer Zure aita ezagutu eta pen-tsatu nuen: nolako egurra, halako ezpa-la.

Leo Urteari agur esateko gogo handiegia duzu. Trankil hartu.

Virgo Jai egunak aprobetxatzen saiatu. Zaharra izatean izango duzu lo egiteko astia.

Libra Argazki guztiak zuri beltzez ateratu behar. Hori mania!

Scorpio Tituludun gehienek lortzen dute lana, beraz zuk ere lortuko duzu.

Sagitarium Kriston katarroa harra-patuko duzu zaindu eta ganoraz jastzen ez bazara.

Capricorn Ohean zaudenean, txanogorritxuren amonaxoa diruduzu.

Aquarius Herria txiki geratu ei zazu. Mesedez, kabidu!

Piscis Zergatik moztu duzu ilea? Oraingo orrazkera oso arraroa da.

PUBLIZITATE LANETAN JARDUTEKO KOMERTZIALA BEHAR DA

BEHARREZKOA:

- Euskaraz ondo jakitea, idatziz eta ahoz.
- Harremanetarako erraztasuna.

BALORATZEKOAK:


- Maketazio eta diseinu arloko jakituria.
- Herri-aldizkariak ezagutzea.
- Komertzial lanetan izandako esperientzia.
- Argazkigintza arloko jakituria.

ARGIBIDE GEHIAGO JASOTZEKO EDO CURRICULUMAK BIDALTZEKO HELBIDEAK:

- Berrigara. Errotalde jauregia. Bergara. Tfnoa: 76 03 97.
- Elgoibarren. Nafarroa enparantza, 2. Tfnoa: 74 41 12.

ESKAERAK ETA CURRICULUMAK JASOTZEKO EPEA: ABENDUAREN 13a.

• EUGENIO ETXEBESTEREN GOMENDIOA •



Abendua musikaren hilabetea izango da aurten ere Arrasaten. Eta musikazale batek ezin beste gomendiorik eman, hori baino: Akordeoi txapelketa, Donostiako Orfeoia, Letoniako Orkestra, Te Deum emanaldia eta Gabon Kantan kontzertua... "Musika entzutera joatea gomendatzeaz gain, zer iruditu zaion manifestatzea eskatuko nioke irakurleari. Txaloz, txistuz, baina espresio gehiagorekin musikarekin ondo pasatzea". Izan ere, musika gozamenarako aukera da, "eta kontzertuak ematen duen aukera aprobeztatuz, parte hartzea gomendatuko nioke herritarrei".

• PROGRAMAZIOA •



Aste osoko zubia

Datorren aste osoan, ez da ATBko emisiorik izango. ARKOko langile guztiok, aste osoko "zubia" hartuko dugu. Dena dela, abenduaren 4an, Mondragol saioa ohizko orduan emitituko da: Mondra futbol taldeak jokaturako partiduen berri ekarriko digu Itxaro Zubillagak.

Hori bai, abenduaren 12an betiko programazioarekin bueltatuko gara eta jakina, albiste preskoekin. Ondo pasa zubia!

• KOMIKIA •



BEGIEN ZORROZTASUNA NEURTZEKO FROGA

ASMATU BI LAGUN HAUETATIK NORIK ULERTU EZ DITUEN H.I.E.S.-AREN AURKAKO NEURRIAK



I. Etxe

Memesa
79 42 22

Plus Ultra
taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 57

• SOLUZIOAK •

Horizontalak: 1. Eixabe, 7. Deitu, 9. Ho, 10. Aditu, 12. Neskato, 14. Oria, 15. ELA, 17. Lan, 18. Laga, 19. Anarkiko.
Bertikalak: 1. Edonola, 2. Teh-weran, 3. Xi, 4. Ataka, 5. Buda, 6. Lan, 8. Kalora, 11. Itegl, 13. Ants, 16. Ola, 18. Ak.
Jergifitikoak:
Besapean.

Etxebizitzak

- **Jantzitako etxebizitza salgai** Uribe Auzoan, 5. zenbakia, 2. pisua. Tfnoa: 94-683 07 72.
- **Etxebizitza alokatuko nuke** eta beste lagun batzuk ere etxea osatzeko prest bazaudete, jarri nirekin kontaktuan. Tfnoa: 81 21 71. (Xabier, 8etatik aurrera)
- **Bi oheko logela** alokatzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- **Etxea salgai Uribe auzoan.** 85 m². Tfnoak: 79 97 86 & 79 86 37.
- **Salamancan etxebizitza salgai.** 5 logela, egongela, 2 komuna eta sukaldea. Eguzkitzua. Prezio arrazoizkoa. Komunitate gastu gabe. Tfnoa: (923) 23 55 85. Deitu arratsaldeko 2etatik 5etara.
- **Playa de la Rotan (Torreviejan)** etxebizitza polita salgai. 43 m². Hondartzatik oso hurbil. Tfnoa: 71 63 79.

Etxebizitza alokagai Erdiko kalean, 4-5 lagunentzat. Tfnoa: 77 03 38 / 79 18 03.

- **Neska bat edo bi behar dira Arrasaten etxebizitza betetzeko.** Dei egin Gasteizko tfno honetara: 945-22 34 97. Erdur.
- **Neska behar da** Donostiako erdikaldean otsailetik ekainera etxebizitza osatzeko. 17.500 hilean. Tfnoa: 79 26 93.

Lana

- **Klase partikularrak ematen dira:** kontabilitatea, estatistika, ekonomia, OHO eta UBI. Tfnoa: 77 04 82. Amparo. Esperientziaduna.
- **Umeak zaindu edo etxeko lanak** egingo nituzke. Baita garbitasun lanak orduka ere, taberna, etxe edo jatetxeetan. Tfnoa: 79 96 10. Maritxu.

- **Klase partikularrak.** Ingelesa. Esperientziaduna. Tfnoa: 79 21 56. Edurne.
- **Klase partikularrak ematen dira:** latina, gaztelera, euskara, ingelesa. Maila guztiak: OHO, BO, GB, BBB, UBI... Esperientziadun lizentziatua. Tfnoa: 77 04 07. (Goyo).
- **Informatikako klaseak ematen dira.** Soinua, sistema eragileak eta grafikoak. Tfnoa: 77 02 59. Iker.
- **Sasoiko emakumea** ume edo pertsona helduak zaintzeko prest. Deitu 79 23 54 tfnora.
- **Frantsesezko mintza-praktikako klaseak** jasoko nituzke. Tfnoa: 79 22 13.
- **Etxeko lanak egin, haurrak zaindu** edo dendarri lan egingo nuke. Tfnoa: 79 77 32 (M^a Carmen).
- **Baxuzko klaseak** ematen ditut. Tfnoa: 79 78 65. (Aitor).
- **Haurrak zaintzeko** edo etxea garbitzeko andra euskalduna eskaintzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- **20 urteko gaztea** lan egiteko gertu. Tfnoa: 79 44 86.
- **Haurrak zaintzeko edo etxea egiteko** esperientziadun neska eskaintzen da. Esperientzia dut, eta informeak ere bai. Tfnoa: 79 76 27 (Maite). Dei egin goizeko 9etatik 11etara.
- **Haurrak zaintzeko edo etxea garbitzeko** esperientziadun neska eskaintzen da. Tfnoa 79 73 06 (Ana).
- **Emakumeak etxeko lanak egin eta umeak zainduko** lituzke. Tfnoa: 79 31 58.
- **Software neurria.** Ikastetxeak, akademiak, lanbide liberalak, PYMEak, komertzioak eta tabernak. Tfnoa: 79 54 87. Carlos
- **Gaixo edo/eta adineko pertsonak** zaintzen ditut. Tfnoa: 945-17 07 28. Bautis.
- **Edozein motatako lanak garbira pasatzen ditut ordenagailuz.** Interesatuak deitu 79 77 59 tfnora eta galdetu Fernandogatik.

Salerosketak

- **Gitarra akustiko eta elektrikoa saltzen ditut oso merke.** Tfnoa: 79 41 97.
- **Garajea salgai edo alokagai Altamiran.** Tfnoa: 79 36 79.
- **Zure telebista zaharra botatzeko asmotan bazabiltza,** erosteko prest egongo ginateke gu. Tfnoa: 79 53 40.
- **Garaje irekia salgai** Uribarri etorbidean. Tfnoa: 79 88 24. Prezioa eztabaidagarria.
- **OPEL CORSA berria salgai,** gutxi erabilita (18.450 Km). Tfnoa: 79 25 22. Gauetan deitu 20,30etatik 23,00etara.
- **Sofa bat eta bi besaulki salgai.** Tfnoa: 79 11 24. (Mila).
- **R-5 GTLa salgai.** NA-F. Tfnoa: 79 15 96 (Asier).
- **"Maravillas del saber"** enziklopedia salgai. Tfnoa: 79 34 79.
- **Akordeoa saldu egin nahi dut,** 80 baxu ditue-na. Tfnoa: 79 52 80.
- **Ixe erabili ez ditudan NIKO R objetiboak saltzeko prest.** Oso egoera onean. AF NIKON R35-70 (1: 3,3-4,5) 22.000 pta. AF NIKKO R 70-210 (1: 4-5,6) 35.000 pta. Dei egin 77 04 44 tfnora. Eguerdian edo gauaz.
- **AMSTRAD CPC 464 salgai.** Joku asko ditu. Tfnoa: 79 16 19. Valen.
- **Goizeko 7etarako Urbinan egon behar baduzu,** nirekin etor zaitezke kotzez. Buelta arratsaldeko 6etan egiten dut. Tfnoa: 79 91 63. Joseba.
- **Lentila kaja bat estalki berdeduna** eta lentilak barruan. Alai zinematik pasa jasotzera.

Denetarik

Aste Gazte

Bekak

- Estatu Batuetan ikasketa artistikoak hedatzeko bekak (Kultura Ministeritzak deituak). Gaiak: eskultura, pintura, arte plastikoak, musika, dantza, antzerkia... Epea: abenduak 16.
- "Real Colegio Complutense" k, Harvard uninbertsitatean edozein gairi buruz graduosteko ikasketak zein ikerketak burutzeko bekak deitu ditu. Lizentziatuei zuzenduak. Epea: urtarrilak 13.

Lana

- Oiartzungo Udalak lan-

postu hauen deialdia egin du: a) administrazio orokorreko teknikari bat, b) kultur eta euskara teknikari bat. Epea: abenduak 7.

- Erandiko Udalak lanpostu hauek kaleratu ditu: a) Heziketa Fisikoan lizentziatu bat b) administratibo bat d) lau pertsonal laguntzaile e) mantentzen diren ofizial bat. Epea: abenduak 16.

Eski Kanpaina (Diputazioa)

- Eski Alpinoa, 15-29 urte bitartekoei zuzendua. Iharduera, eskialeku eta prezio ezberdinak. Erreserbak egiteko

epea, dagoeneko zabalik dago.

Ikastaroak

- Hezkide Eskolak 3. Adineko Monitore ikastaroa antolatzen du. Astaldian edota Hirugarren adinean esperientzia duten 21 urtetik gorakoei zuzendua. Iraupena: urtarrilaren 15etik martxoaren 19ra arte. Prezioa: 32.000 pta. Epea: abenduak 15.

Lehiaketak

- Muskizko Udalak, IX. Ipuin Lehiaketa deitu du. Gaztelera, gai libre. Epea: abenduak 17.
- IX. Portugalete Hiria Komiki Lehiaketa. Euskaraz zein gaztelera. Epea: urtarrilak 13.

"Ai, gaztaroa!!" esan zuen batek, "zein polita den eta zelako gutxi irauten duen!!" "MUJERES DE NEGRO" JOSEFINA ALDECOA



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

Katuen testamentua

Oskorri, Kukubiltxo eta Kepa Junkera

Musakolako kiroldegian

Abenduak 10, larunbata

Arratsaldeko 5etan

Sarrera: 400pta.

Aldez aurretik salgai. Iudotekan

ARRASATEKO UDALETXEA



uff!
ALTZARI MERKEAK
goian bildu ditu



centro
hogar
MUEBLE

garantiaz



**Amuebladora
Mondragonesa**

sartzen dena:
zeuk behar dituzun altzo

ARRASATEKO BARIANTEA